

ARGIA

ANARI ALBERDI


***“Behar nuen nire burua eramán
arrisku-eremu batera”***

16-20. orrialdeak



**Europaren
berrarmatzea, gastu
sozialaren kontura**

12 | EKONOMIA



**Sektore publikoa
euskalduntzeko
dekretuaren balorazioa**

26 | EUSKARA



**Futbol
modernoaren
B aldeaz**

32 | OIER SANJURJO

OROIMEN HISTERIKOA

Nagore Irazustabarrenaren podcasta

*Historia diren istorioek txoratzten
gaituztenontzako saioa*



Asteartero
ARGIAN eta
audio plataforma
guztietan

 ARGIA.eus/podcast

Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | MATERIALISMO
HISTERIKOA
- 07 | EZ HANKA EZ BURU


 AZALEKO ARGAZKIA: **IBAI ARRIETA** / ARGIA CC BY-SA

Iritziak

- 21 | NORA SALBOTX
- 22 | ANE ABLANEDO
- 23 | JOSE IGNAZIO ANSORENA
- 23 | CASTILLO SUÁREZ
- 24 | ROSER ESPELT

Finkoak

- 40 | BIZI BARATZEA
- 44 | ARGIA KOMUNITATEA
- 45 | DENBORAREN MAKINA
- 50 | DENBORA-PASAK
- 51 | KULTUR-KRITIKAK
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO BUKATU

 SAILEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK: **CLIPART COURTESY FCIT**


LAIDA ZAPRE / ARGIA-CC-BY-SA

46 | **JONE ERZILLA**

Durangoko artista gaztea elkarrizketatu du Amets Arangurenek. Mintzatu da artearen zentzuaz, prekaritateak bere lanean duen eraginaz, plagiatzeaz eta erreferenteez...

Elkarrizketak eta erreportajeak

12 | NET HURBIL

Europak armak erosiko ditu, zuri pentsioa kenduta

Urko Apaolaza

16 | PERTSONAIA | ANARI ALBERDI

“Nire eremua soziopoetika da”

Danele Sarriugarte

26 | EUSKARA

EAE-ko sektore publikoa euskalduntzeko dekretua, aukera galdua

Onintza Irureta

32 | KIROLA | OIER SANJURJO

“Pena ematen dit jendea futbolarekin horren itsututa egoteak”

Eñaut Agirrebengoa

36 | NAZIOARTEA | GUARANIERA

“Haurrak ‘isilak’ ziren, gaztelaniaz, ez guaranieraz, baina hizkuntza honek ez zuen balio”

Miel A. Elustondo


 EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN
SAREKO KIDE GARA

 ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

 KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Jabetza
Komunikazio Biziagoa
S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea

Erredakzioa
Ainara Rodil, Amaia Lekunberri,
Axier Lopez, Eneritz Arzallus,
Estitxu Eizagirre, Gorka Peñagarikano,
Jenofa Berhokoirgoien, Jon Torner,
Lander Arbelaitz, Leire Artola,
Manex Moreno, Mikel Garcia, Olaia L.
Garaialde, Onintza Irureta, Pello Zubiria,
Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua
Maitane Gartzandia

Argazkilaria
Dani Blanco

Produktzioa eta inprimaketa
Antza S.A.L.

Administrazioa
Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde

Salmenta
Karlos Olasolo, Pello Basurto

Banaketa
Olatz Korta

Azoka
Mikel Olabide

Idazkaritza
Aloña Sorraluze, Bego Zuza

Web garapena
Asier Iturralde

Informatika
Iametzta interaktiboa, S.L.

Lege gordailua: SS 837-2012
ISSN: 0213-909X

Batzorde parekidea: 72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO
Posta elektronikoa
komertzial@argia.eus
komunitatea@argia.eus

Telefonia
943371545

Gipuzkoa
Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

Nafarroa
Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,
31001 Iruñea

 Ametzagaña taldeko kidea da ARGIA
honako enprekin batera:


Doan eta libre

 ARGIAko edukiak kopiatu,
moldatu, zabaldu eta argitara
ditzakezu, gure egiletza aitortu eta
baldintza beretan eginez gero.

 Lizentzia hau baliagarria da
testuentzat eta, argazkien eta
ilustrazioen kasuan, ARGIAren
sinadura daramatenentzat soilik.

 Ekoedizioaren Institutuko
bazkide da ARGIA





Humanitarioak

Hain hipokrita, tragikoa, umiliagarria eta zinikoa ez balitz, komikoa litzateke Europako presidente batek bideo bat zabaltzea "laguntza humanitarioko" sei paraxutedun palet jaurti dituztela harro erakusteko, azkena Frantziako bandera batekin apaindua. Errefuxiatu palestinarrei laguntza ematen dien NBEko erakunde bakarrari finantzaketa guztia eten dion herrialde bereko presidentea da. Airetik janaria botatzeak, eraginkorra ez izateaz gain, gordin erakusten du Mendebaldeak onartu duela Israelek gose gerra-arma gisa erabiltzea. AEBek bakarrik 4.000 milioi dolar oparitzen dizkiote urtero Israeli egiten duena egiten jarrai dezan, eta egunotan 16.000 milioitako laguntza berezia onartzeko prozesuan dago. Palestinarrei ogia botatzen diete, kaiolan diren animaliei lez, hamster-gurpila biratzen jarrai dezaten, genozidak atseden hartu eta barre egiten duen bitartean. Areago. Martxoaren 8an bost palestinar hil "dira""huts" egin zuen AEBetako "laguntza humanitario" horietako bat gainean erorita. Tragikomedia inperialistaren albo-kalteak, omen.

📍 Gazan malnutrizioak jotako 335.000 umeetatik bi, Rafah-ko osasun-zentro batean.

M. SALEM / REUTERS

🔴 AXIER LOPEZ

Ertzaintzak foam jaurtigaiz zauritutako kasu gehiago azaleratu dira

 ERREDAKZIOA

Tolosako inauterietan ertzainen karga batean begian zauritu zuten 16 urteko Villabonako gaztearen kasuak erdigunera ekarri zuen Ertzaintzaren jokabidearen eta foam jaurtigaiei gaia. Ordutik, karga gehiago eta foam jaurtigaiez zauritutako gehiago errepikatu dira.

Martxoaren 5ean, Realaren eta Paris Saint Germain-en arteko futbol partida hasteko zegoela, Ertzaintzaren agenteek egindako kargetan 44 urteko emakume bat zauritu zuten eta zainketa intentsiboetako unitatean egon behar izan zuen, martxoaren 8ra arte. Ertzaintzaren interbentzioa "basakeria" izan zela adierazi du bere senarrak.

Noticias de Gipuzkoa agerkariak azaldu duenez, elektroentzefalograma bat egin diote zaurituari eta neurologiako solairura eraman dute. Senarrak EITBri egindako adierazpenetan azaldu du "hematomak hor jarraitzen" duela eta "xurgatu arte zain egon" beharko dutela. Senarrak espero du bere emazteak bizitza normala egin ahal izango duela, eta medikuek esandakoak kontuan hartuta, "betiko Amaia" izateko itxaropena dauka.

Senarrak irrati publikoan esan du "basakeria" izan zela ekintza. Azpimarratu du distantzia motzean egin zutela tiro eta "onargarria ez den" altueran; "ezin da gerritik gora tiro egin" gehitu du zauritua- ren senarrak.

IKERKETA ZABALIK

Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak jakinarazi du barne ikerketa zabaldu duela eta emakumearekin eta haren familiarekin harremanetan jarri dela, gertaturikoa argitze-ko. Era berean, epaitegiari eskatu dio auzitegi-mediku batek aztertu dezala nola zauritu zen. "Euskal jarraitzaile erradikalek sorturiko

istiluen barruan, inpaktu bat jaso zuen buruan", dio Ertzaintzak gaztelania hutsean argitaraturiko oharra.

Beste bi zauritu izan ziren Reale Arena futbol estadioaren inguruan. Martxoaren 7an beste emakume batek salaketa jarri zuen Donostiako Udaltzaingoa. Segurtasun Sailak adierazi duenez, zauri "arinak" izan ditu bizkarrean jasotako inpaktuaren ondorioz.

Hirugarren pertsona batek begi ondoan jaso zuen inpaktua.

GASTEIZEN, MATRAILEZURRA APURTUTA

Gasteizko martxoaren 3ko manifestazioan, Ertzaintzaren foam jaurtigaiei batek adineko emakume bati matrailezurra apurtu zion. Matrailezurra bi lekutan apurtu zioten eta ospitalean zegoela eta ebakuntza egin beharko ziotela jakinarazi zuten martxoaren 6an egindako agerraldi masiboan.

Manifestarien artean oldarka sartu zen Ertzaintzaren furgonetak zapal dutako pertsona ere aipatu zuten, baina ezin izan zuten segurtatu harrapaketa horren ondorioz peronea apurtuta duen. Bi zauritu horiez gain, askoz gehiago ere izan zirela adierazi zuten (ikus argazkia).

Martxoak 3 elkarrekin eta ELA, LAB, ESK eta Steilas sindikatuak diotenez, "ez da onargarria Martxoaren 3ko memoriak urtero Poliziak zauritutako pertsonak gehitzen jarraitzea". Ertzaintzaren karga horiek, gainera, "etengabe birbiktimitzatzen dituzte Poliziaren erasoak jasan dituztenak".

ERKOREKA: "EZ DA KASUALITATEA"

Josu Erkoreka Eusko Jaurlaritzako Segurtasun sailburuaren arabera, azkenaldian Tolosan, futbol partiden testuinguruan edo Gasteizen Ertzaintzak egindako esku-harteak gehiegizko iritzita kritikatu dituzte batzuek, xumeegiak izateagatik besteek. Sailburuaren esanetan, "neurritsu" aritu da Ertzaintza guztietan. Azken operazioak defendatzeaz harago, istiluen atzean "sigla" jakin batzuk daudenaren "susmoa" duela adierazi du, eta susmoa ez dela berea soilik: "Ez dakit zein, baina euskal jendarte osoa ari da galdera hori egiten bere buruari". ●



Ertzaintzak martxoaren 3an foam jaurtigailuekin eta borrekin zauritu zituen zenbait herritarren argazkiak zabaldu ditu LAB sindikatuak.

Zer da berria



UXUE APAOLAZA LARREA

Ez dira taberna batean ausartu, baizik eta Instagramen, Facebooken, edo email batean (mundu digitalean ere badira zaharkituak: email hori Hotmailekoa izan daiteke oraindik, pentsa). Zuzeneko lehen musuen ondoren, Whatsapp eta Telegram bidez, poltsikotik iritsiko zaizkie laztan batzuk, eta bideodeiez besteak. Ilunabarra elkarrekin begiratu dutenean, desioa ez dute izar iheskor bati begira eskatu, Elon Musk-en satellite bati begira baizik: deigarriagoa, Starlink (batzuek etxean googleatu ondoren jakin dutena zer den).

Teknologia berriek dena arintzen dutela dirudi. Oso gutxi ikusten dugu, zati bat bakarrik, politena. Baina eman digute abisua, zirrikituren batetik ateratzen dira telefono mugikor geometriko eta kolore uniformedunaren azpiko lohiak. Aldizkari honetan bertan gogorarazi dizkigu Adrián Almazánek. Kongoko haurren esplotazioa kobaltoa lortzeko, energia gastua, hondakinetan lurperatzen ditugun herrialdeak (Ghana kasu), gerrak, betiko herrialdeak (Ameriketako Estatu Batuak, Txina), prekarietatea, burujabetza galera... Guztiak dirudi nahiko zaharra.

Arinagoa zirudien, baina zer da berria beldurak zaharrak badira, konpromisoa aingura bat baino gehiago bazen azkenean, eta, gabe, amiltzen bagara berdin gaur egun ere, zer da berria desioa beteko ez bada berdin, zer da berria askatasuna ezer ez bada, eskurik ez badago heltzeko, zer da berria dena berdin-berdin kutsatzen badugu. Berria izenak baino ez dira (izango). ●



MOTZEAN

Frantziako Konstituzioak "aborturako askatasuna bermatzea" jasoko du; konstituzioan abortu eskubidea "bermatzen" duen munduko estatu bakarra da. Kolektibo feministek, oro har, txalotu egin dute bozketa. "Eska ditzagun oinarrizko baliabideak hori gauzatu ahal izateko" gehitu du Baionako Manifeministen Kolektiboak.

Indar Gorriko 61 kide atxilotu eta behin-behinean aske utzi dituzte. Hala nola lesio larriak eragitea, talde kriminaleko kide izatea eta liskarretan aritzea egotzita ikertzen dituzte.

Frantziako Poliziak sei gazte atxilotu ditu Urruña, Hendaia eta Baionan, erretreten erreformaren aurkako manifestazioan istiluak eragitea egotzita. Aske utzi dituzte gero.

Nafarroako Lokizaldean, egun batzuk lehenago egin dute Korrika. Eremu ez-euskaldunean kokatuta dagoen eskualdean Korrikaren kilometroak erosteko hasi ziren egun hau ospatzen.

Herritarren artean hiru hilabeteen 70.000 euro lortzea du erronka Amillubi proiektuak. Zestoan dauden lur emankor batzuk ondasun kolektibo bihurtzea da helburua.

Komunitatea



ULA IRURETAGOIENA

2024ko Arkitektura Pritzker Saria arkitekto japoniar bati esleitu zaio: Riken Yamamoto-ri. Bere izena tekleatzen baduzue, bere izenari lotuta dauden eraikin irudiak ez dira bereziki deigarriak. Deigarria dena da Pritzker sariak oraindik ere eraikin berriak eta oparoak egitearen ibilbidea saritzen duela eta izen propio bati lotua egoten dela. Ulertzen da arkitektura esanguratsua eraikinean eta pertsona baten egitekoan dagoela. Ejem, arkitektura profesioaren irudikapen klasiko bati erantzuten ari zaio, gaur egun arkitektura bulego asko hainbat pertsonak osatutako kolektiboak baitira eta ez dute izen propio baten pean lanik egiten. Arkitekturaren eginkizuna espazioaren materialitatea da, ez du zertan eraikin berri baten emaitza ekarri behar. Agian urte batzuetan belaunaldi aldaketak ekartzen duena Pritzker sarietan islatuko da.

Baina Pritzker saria egunerokoarekin bat dator, Yamamoto aukeratzean eman duen arrazoian: bere arkitekturak komunitatea aintzat hartzen duela. Txikitan bizi zen etxeak aurrealdean farmazia bat eta komunitateari zerbitzu emateko gunea zeukan eta atzealdean etxe pribatua, eta esperientzia horrek bere lana zedarritu duela kontatzen du Yamamotok. Esan behar da, arkitektura ikasleen hitz gogokoenetariko bat "komunitaterako gunea" sortzea dela. Etxe-erakinean eta auzoetan espazio pribatu eta publikoaren banaketa gainditu nahi duen txoko bat da, jendarte saretzeko helburuz. Hirugarren kategoriako txokoetan gauza asko gertatzeko aukera irudikatzen da: bazkaldu, irakurri, bilera bat egin, jolastu, egonean izan, eztabaidatu... Irisgarriak, ongi argiztatuak, ongi ekipatuak eta erraz erabiltzekoak dira, etxean eta kalean ez dauden ezaugarriak dituztelako, beste kategorietan gertatzerik ez dena gertatzeko. Elkarbanatzeko gunea bat, elkarren ondoan egoerak gertatzeko, elkarrekin ekintzak antolatzeko. Yamamotok komunitateari eta inguruneari arreta jartzen dio eta sentsibilitate hori garaikidetasunaren seinale omen da. ●



M-11: orduko eta gaurko begiradak

URKO APAOLAZA AVILA

Gasteiz, goizeko 8:15. Martxoak hamaika ditu eta egunsentiaren hotzetik babesteko zamarrak ondo lotuta atera gara autobusetik lanera. Florida parkea gurutzatu, Zulueta jauregia eta Ajuria-Enea albo batera utzi, eta garitan ohiko kontrola. Ezer berririk ez. Paper eta bilera arteko beste egun bat datorkigula dirudi. Baina zurrumurruak berehala zabaldu dira, hedabideak hasi dira lehen datuak ematen interneten. Telefonoak sutan daude. Leherketak Madrilgo aldiriko trenean. Sarraskia izan da. 193 hildako.

Hogeitortek para ematen dute Lehendakaritzan ikusi eta bizi izan zena hobeto interpretatzeko. Etxe hartan askok ez zuten entzun behar izan lehenengo ordu horietan Madrilgo komunikabideetan bolo-bolo zebilena -ETAren atentatu bat izan zela- euren sententzia emateko: "Kabroiak, hau aurrera ihes bat da", atera zitzaion bulego eta korridore horietan zaildutako goi-mailako teknikari bati, leherketen berri izan orduko. Gero etorri zen Juan Jose Ibarretxeren agerraldi goiztiar famatua, beste inor kamera aurrean jarri aurretik, esaten hori egin zutenak ez zirela euskaldunak, "basapiztiak" zirela. Eta ondoren egoitza aurrean elkarretaratzea, lehendakaria bera, kontseilariak eta pertsonal guztia bertan zirela. "Denak behera", agindu zuen beste lehendakari baten senide oso gertukoak begirada irmo batekin. *Ai-ai-ai* begirada horiek... Bekadun eta praktikatako langileon artean zalantza nagusi zen ordea. "Ez da posible". Hori zen bazkalorduan *tuper* arteko esaldi murtxikatuen. Gero, Arnaldo Otegia "ezta hipotesi bezala ere", esan zuen. Eta iluntzerako, irradian Ángel Acebes espainiar ministroaren ahotsa, Koranaren bertsetak aurkitu zituztela furgoneta batean. Bi egun geroago, beraz, akabo gezurra, nahiz eta Madrilgo eskuindar medio zenbaitek jarraituko duten konspirazioaren teoriekin bueltaka. Baina tartean, Angel Berrueta eta Kontxi Sanchiz hilotz utzi zituzten Iruñean eta Hernanin.

Gaur egungo begiradatik, harrigarria da Lehendakaritzan eta Sabin Etxean gehienek hasieratik nola irentsi -eta hein batean elikatu- zuten ETA izan zena- ren tesia, frogarik izan gabe. Garai hartako testuinguruan kokatzeko ahalegina eginik ere, zaila ematen du sinestea. Ez al zuten informazio gehiago? Zertan ari ziren Ertzaintzako adituak? El Diario.es-en Iker Riojak pista batzuk eman dizkigu. Atentatuaren biharamunean, EAEko poliziaren Análisi eta Informazio Unitateak idatzitako txosten sekretu batek zioen Aznarren Espainiako Gobernua ETA Al Qaedaekin lotu nahian zebilela, Madrildik konfidantzazko pertsona batek emandako informazioaren arabera "denak langabezia geratuko" zirelako bestela. Berandu baina. Hauteskunderi begira izan edo ez, esanak esana zeuden. ●

1.057

sexu-gehiegikeria onartu ditu Espainiako Eliza Katolikoak, Eliza barruan adin txikikoei eginak. Urtetan, abusuak ukatu egin ditu. Espainiako Arartekoaren ikerketaren arabera, 440.000 dira pederastiaren biktimak Elizaren barruan.

13

parke eolikoren proiektuak geldiarazi ditu Galizian bertako Justizia Auzitegi Nagusiak, ingurumeneari izan ditzaketen ondorioengatik.

142

bisoi europar (Mustela lutreola) baino ez dira bizi Espainiako Estatuan, eta, beraz, espeziearen egoera kritikoa da, Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioaren datuen arabera.

“Ni ez naute inoiz pilota edo borra batekin jo, mugimendu horietan ez naizelako sekula egon”

ENEKO ANDUEZA

PSE-EEko lehendakariak bere “konfiantza” adierazi dio Ertzaintzari, azken asteotako kargen harira.

EUSKADI IRRATIA (2024-03-08)



“GURE INDARRA INSTITUZIOEN HIPOKRISIAREN ETA DISKURTSOEZ JABETZEKO AHALEGINEN GAINETIK DAGO”

JONE GIL LANDABURU

Euskal Herriko Mugimendu Feministako kidea

Zaintza eskubidearen aldeko eta indarkerien aurkako aldarriek hartu dituzte Euskal Herriko kaleak, martxoaren 8an.

ARGIA.EUS (2024-03-08)

“Gure eraikinetatik euskalduntasunarekin lotura duen guztia modu basatian ari dira ezabatzen”

MIKEL OTEIZA, Atarrabiako alkatea

Nafarroako Justizia Epaitegi Nagusiaren aginduz, udalak Euskal Herriko armarrira ezabatu beharko du herriko frontoiko hormatik, “bere garaian ikurriña kentzera behartu gintuzten bezala”.

EUSKALERRIA IRRATIA (2024-03-05)



TEKNOLOGIA

Zirkuitua hackeatu



DIANA FRANCO

Martxoaren 8a dela eta, berri eta iritzi ezberdinak irakurri ditut. Berdintasunerako bidean lan handia egiten ari da gure gizartea, eta publikoki berdintasunerako bidean feminismoa onartua den borroka bada ere, gizarteko mikrokosmosetara jaisterakoan, bada oraindik berdintasuna lortzeko feminismoaren beharra ulertzen ez duenik.

Feminismotik gure mundua eraldatzeko espresio modu ugari dugu, gizarte honetan ditugun mundu ikuskerak ugariak diren moduan. Aniztasun horren baitan, badira berdintasuna bakarrik mundu produktiboan aukerak berdintzera lotuta ulertzen dutenak: lan aukera bera, soldata bera, mundu produktiboan erabakitzeko botere bera. Bide horretan, Mary Beard-en esaldi bat oso gogoko dut: "Oso zaila da emakumeak gizonezkoentzat kodifikatutako egitura batean sartzea, egitura aldatu egin behar da". Horregatik, emakume eta gizon feministak asko lanean ari dira emakume gehiagok egin dezan bidea zientzia eta teknologian edo emakume ekintzaileentzako inbertsio-funtsak sortzen.

Baina industrializazioan egin genuen lanaren banaketa, lan produktiboa eta erreproduktiboa sexuaren arabera banatuz, ezin da konpondu soilik emakumeak lan produktiboan barneratuta. Zaintzari erantzun on bat eman behar zaio. Zaintzan berdintasunaren ideia landu beharrean gaude. Lantze horretan, zenbaitek irtenbide bezala zaintza negozio bilakatzea ikusten dute. Eta bilakaera horretan, zaintzaren negozioaren errentagarritasuna handitzeko, teknologia ezberdinen bidez zaintza automatizatzea dute helburu.

Zaintzarako zenbait zerbitzu izateak onura asko ditu, baina zaintzatik pertsonak gutiz urruntzeak kalteak dakartzatza gizarte gisa. Zaintza ez baita soilik lana, zaintza harremana da, eta elkarlaguntzan oinarritutako harremanek bihurtu gaituzte izaki (Protpotkin). Horregatik, zaintzari loturiko teknologiekiko mesfidatia naiz. Zaintza zirkuitu itxi bilakatu aurretik, berau hackeatzeko aukera dugu oraindik gizon eta emakumeok. ●

NAZIOARTEA



Haizeak eskuinera jotzen du

AXIER LOPEZ

Aldaketa eta berrespenez betetako astea izan da. Gehienak, tamalez, neoliberalismoa, autoritarismoa, teokrazia eta inperialismoa sendotzeko izan dira.

ATZERAKOIAK NAGUSI EUROPAN

Zortzi urtez boterean izan den Portugalgo alderdi sozialistak gehiengo osoa galtzeaz gain, bere ezkerre-ra dauden alderdiak, Bloco eta PCP, amildu egin dira hauteskundeetan, eta hala, ezkerreko indarren akordio berri baterako aukera guztiak desagertu dira. Eskuinak irabazi du, eta inbestidura bilatuko du Chega eskuin muturra makulu hartuta. Neofaxismoa hirugarren indarra da, bost portugaldarretik batek eman baitio botoa.

Irlandako Errepublikan herritarren gehiengoak bizkarra eman dio demokristauen, zentristen eta berdeen koalizioari, eta erreferendumean errefusatu egin du Konstituzioa aldatzeko proposamena. Emakumeak gizartearen duen rolari buruzko erreferentzia sexista eta zaharkituak ezabatzeko eta ezkontzan oinarritutako familiaren kontzeptutik haratago joateko aukerari atea itxi diote.

Suedian ez da hauteskunderik izan, baina gobernuak herrialdean aspaldiko erabaki garrantzitsuenetakoa gauzatu du. Bi mende baino gehiagoko neutraltasunaren ondoren, Suedia NATOk kide bihurtu da ofizialki martxoaren 8an. Aldaketa historiko hori imajinaezina izan da Errusiak Ukraina inbaditu zuen arte.

GEOPOLITIKA INPERIALEAN ALDAKETARIK EZ

Vladimir Putinek XXI. mende osoa darama Errusiako agintaritzan, eta datorren asteburuko hauteskundeetan beste sei urtez berrituko du agintaldia. Ezarri duen eredu autoritarioa oso errotuta dago herrialdean, eta inork ez du espero aldaketarik izatea. Ez dirudi kalterik sortuko diotenik bozetan us-tez azkarra izango zen gerra batean bi urte baino gehiago murgilduta egoteak, ezta berriki barne oposizioaren aurpegi nabarmenetako bat, Aleksei Navalni neoliberalak, urrutiko espetxe batean sakabanatuta hil izanak ere.

Errusiako aliatu nagusietako batean, Iranen, ultrakontserbadoreak legebiltzarrerako hauteskundeetako irabazleak izan dira. Oposizioak gogor kritikatu du emaitza eta boikotera deitu du, hautagai asko deskalifikatuak izan ondoren. Edonola ere, parte-hartzea %41ekoa baino ez da izan. Errepublika Islamikoan izan den baxuena.

Errusia eta Iran lotzen ditu, nagusiki, AEBen mundu mailako hegemoniaren aurkakotasunak. Bloke horiek zenbait proxy gerratan murgiluta diren bitartean, inperioaren metropolian hauteskunde karrerarekin jarraitzen dute. Trumpek eta Bidenek "superasteartean"—hauteskunde primarioetan estatu gehien biltzen dituen eguna— arrakasta handia izan dute. Horrek bidea erraztu du azaroko presidentetzarako hauteskundeetan herritarrek aukeratu behar izan dezaten, beste behin ere, biren artean: burutik jotako sexu-abusatzailerik izugarri aberatsa ala genozida senila. ●

Eskola estigmatizaturik ez Judimendin

 MIKEL GARCIA IDIAKEZ

Aereduko eskola D ereduko bihurtzea erabaki dute Gasteizko Judimendi auzoan, eta aurre-matrikulazioak emaitza nabarmena utzi du: orain arte profil erdalduna zuen eskolan, 2 urteko gelan izena eman duten 15 umeetatik erdia inguru familia euskaradunetakoak dira. “Segregazioa apurka-apurka amaitzea denon nahia da, eta gurasoen inplikazioa eta konpromisoa gakoa da bide horretan”.

A eredukoa izanik, ikasle guztiak jatorri atzerritarreko familien seme-alabak edo etxean erdaraz bizi diren familiak dira Judimendin. Auzoko guraso euskaldunen seme-alabak ere erakarri asmoz, ordea, D eredura pasako da: 2 urteko mailan hasiko da, eta pixkanaka, urte batzuen buruan, maila guztiak hartuko ditu euskarazko murgiltze ereduak. D eredua lehen aldiz izango duen ikasturterako, izena eman duten familien erdia euskaradun gurasoak izateak erakutsi du apustuaren arrakasta:

“Oso balorazio ona egiten dugu, beharra zegoela ikusi da; eskolak auzora zabaltzeko ahalegina egin du eta familiek lekukoa hartu dute. Familia talde berri honen auzardia eskertzen dugu, eraldaketa prozesuaren zutabe oso garrantzitsua izango baitira, ezinbestekoa dela esango nuke”, kontatu digu Amaia Zudaire eskolako zuzendariak. Azken finean, “pausoa bakarrik emateak beldurra eman dezake, taldeak beste indar bat du”.


Lanketa baten emaitza ere bada, gurasoekin aurrez izandako hartu-emanak



fruituak eman baititu. Trantsizio prozesuaren berri emateko, eskola ezagutzeko eta familiek behar zituzten azalpen guztiak helarazteko ekimen ugari egin da auzoan. “Familia berrien artean badago kezka, hizkuntzen arteko elkarbizitza hori nola izango den, eta guztiz ulergarria da; azaldu diegu nola jardungo dugun, zein erreferentzia ditugun... eta aurrean horri helduko diogu, lanketa garrantzitsua da-eta, esperientziak ere esango digu nondik nora jo”.

Hezkuntzan, ikasleen segregazioa hizketagai nagusietakoa den honetan, aniztasunari ateak zabaltzeko Judimendi eredu al da? “Ez gara ezere eredu –dio Zudaire–, gu ere beste eskolen esperientzietatik abiatu gara eta hausnarketa egin dugu; erroka polita dator, publikoa, anitza eta euskaraz; egungo errealitatea anitza da eta denok gara aldaketa horren parte, denok egin behar dugu bat”. ●

Gizonesfera, ideologia misoginoa zabaltzen

 OLAIA L. GARAIALDE

Uste baina gehiago zabaltzeko da gizonesfera edo manosfera Euskal Herrian. Asier Arizkorreta Emagin Elkarte formatzailea Gizonesferaren jatorriaz, estrategiaz, edukiaz, eta horri aurre egiteko estrategiez mintzatu da Iruñeko Txantrea auzoan.

Ideologia misoginoa eta antifeminista duten interneteko foroek osatzen dute gizonesfera. AEBetatik datorren korronte bat da, eta Euskal Herrira 2010. urtean iritsi zen. Kolektiboetan antolatuta daude, eta guztiek eduki sortzaileak dituzte. Youtube, Forocoches, Intagram, 4chan eta Tiktok plataformen bidez gezurrak zabaltzen dituzte: sasizientzian, sasihistorian edo sasipsikologian oinarritzen dira, ikerketa partzialak erakusten dituzte, indarkeriari garrantzia kentzen diote, emakumei errua botatzen diete eta gizonak biktimizatzen dituzte. Feminismoaren lorpenen kontrako erantzunak direla azaldu du Arizkorretak: “Fe-

Hezitzaile ugari egon da hitzaldian, eta askok gazteekiko kezka adierazi dute. Izan ere, batzuek esan dute horrelako jarrerak identifikatu dituztela klasean

minismoak aldaketa sozial bat lortzen duen bakoitzean maskulinitate krisi bat dago, eta gizonesferak erantzuten du”.

“Aitatasun estoikoak, adibidez, indar handia hartu du, eta mina onartu behar dela eta emozioak ez direla adierazi behar dioten diskurtsoak zabaltzen dira”. Hortik etorritako mezu asko gaur egun ikus-entzunezkoetan daude. Bertan jasotzen diren mezuak dira, besteak beste,

“nola egin aberatsa gorputza indartuz” edota “gaixorik nago, eta botata egon ordez, egurra ematen diot gorputzari”. Batzuek txantxetan hartzen duten arren, beste askok mezu horiek sinesten dituzte: “Batzuetan ez gara jabetzen, baina milaka jarraitzaile dituzte, eta hori kezkatzekoa da”. Jarraitzaile asko izateaz gain, zilegitasun “handia” ere badute. Batzuek aurpegia estaltzen zuten hasieran, baina orain ez dute nor diren erakusteko beldurrik.

Gizonesfera arazo “larria” dela eta ondorio “handiak” eragiten dituela azpimarratu du Arizkorretak: “Honi aurre egiteko ardura handia dugu gizonok. Baina zer egin dezakegu gizonok?”. Arizkorretak esan du aukera bat izan daitekeela aliantzak sortzea: “Agian talde guztiarekin ezin da, baina pertsona konkretu bat hartu eta harekin hitz egin daiteke. Ez da isiltzeko garaia, aurre egin behar diogu”. ●

EUROPAK ARMAK EROSIKO DITU, ZURI PENTSIOA KENDUTA

Badator gerra handi bat. Gastu militar ziztrin horiekin ez goaz inora. Trumpek bakarrik utziko gaitu oraingoan. Herritarrek prest egon behar dute Putinen aurrean... Europar Batasuneko agintarien artean nagusitzen ari den diskurtso hori, hitz bakarrean laburbiltzen da: berrarmatzea. Baina inori gustatuko ez zaion letra txikia dauka atzealdean. Armak erosteko dirua nondik aterako dutela uste duzu, ba?

 URKO APAOLAZA AVILA

Gure politikariak hauteskunde autonomikoen kanpainaurrearekin lokartuta dauden bitartean, jendearen erdia futbol edo pilotako finalekin amesten eta beste erdia Palestinara izututa begira dagoen bitartean, eta hedabide nagusiek berriz, Madrilgo ustelkeriaren zain-odolak zaborrez txutatzen dituzten bitartean, hori guztia gertatzen den bitartean, *fartsa* baten arriskuak Europa zeharkatu du egunotan. Eta “gerra” du izena.

Historia lehenik tragedia bezala agertzen zaigu, eta gero *fartsaz* jantzita, abisatu zuen Marxek. Europar Batasuneko

agintariek txilibitua jo dute eta herritarroi esan digute prest egon behar dugula gerrarako. Ursula Von der Leyen Europako Batzordeko presidentearen hitzek izan dute oihartzun mediatiko handiena: “Baliteke gerrarako arriskua berehalakoa ez izatea, baina ez da ezinezkoa, prest egon behar dugu”, bota zuen ez edozein tokitan, Estrasburgon baizik, europar hiritartasuna duten boto-emaille guztien etxean.

Askoren ustez, ekaineko hauteskundeetan ultraeskuinak Europako Parlamentuan hartu lezakeen indarrari zuzenean lotzen zaio *establishment*

politikoan ugaritzen ari den diskurtso militarista; baita udazkenean AEBetan egingo diren hauteskundeei ere, Donald Trumpek duela aste gutxi garbi esan baitzuen berriz Etxe Zuriko presidente inbestitzen badute bukatu direla osaba amerikarraren dopaminak Ukrainako gerrarako.

Ipurdia utzi beharrean, atera dira Berlinen Olaf Scholz kantzilerra eta beste hamaika esaten armak masiboki produzitu behar ditugula. Emmanuel Macronek Parisetik diosku: Ukrainara soldaduak bidali beharko genizkiake. Eta Vladimir Putin kamaradak Mosku-



FALCON

tik bueltan erantzun: aizak txikito, nik bonba nuklear asko ditiat... Bruselak, bere aldetik, armak Europako industria-ri erosteko salmenta mekanismoa jarri nahi du martxan.

Eskalada hori serioски jarraitzen ari den *La Vanguardia*-k, Arancha González Laya Espainiako Kanpo Harremanetarako ministro ohia elkarrizketatu du, gaur egun Pariseko Kanpo Gaietako Eskolako dekanoa dena. Berdin du Trumpek irabazten duen edo ez, "AEBek atzera egingo dute Atlantikoan eta gure segurtasunaren ardura guk geuk hartu behar dugu", esan du donostiarrak, Europak

**Disuasioa, hori da Errusiak
NAToko herrialde bat
erasotzeko arriskuari jarri
behar omen zaion botika.
Baina, horrek prezio bat
dauka, eta ez txikia**

armak ekoizteko gaitasuna handitu behar duela aldarrikatzearekin batera. "Iraganean gertatuko ez zela pentsatzen genuen guztia, gertatu da. Brexita, Trump hautatzea, errusiarren inbasioa Ukrainan Krimeatik harago, Israel eta Palestinaren arteko gatazkaren itzulerara...". Disuasioa, hori omen da Errusiak NAToko herrialde bat erasotzeko ustezko arriskuari jarri behar zaion botika.

Izan botika nola politika, horrek prezio bat dauka, eta ez txikia. Egunkari beraren orrialdeetan, Manel Pérez *La Vanguardia*-ko zuzendariaren albokoak idatzitako artikulua bat leitu dezakegu:

"*Quien pagará la factura del rearme en Europa?*" (Zeinek ordainduko du Europaren berrarmatzearen faktura?) izena jarri dio.

Von der Leyenek *Financial Times* egunkariari esandakoaren arrastoari jarraitu dio kazetariak: "Gehiago gastatu behar dugu, hobeto gastatu behar dugu, europarrago gastatu behar dugu". Baina horrek badu arazotxo bat: EBk austeritatera itzultzeko neurri fiskalak martxan jarriko ditu aurki, defizita eta zorra murriztuta. Nola ezkonduko da hori armamentuan *gehiago, hobeto, europarrago...* gastatuta? Azalpena grafiko batean aurkitu du Pérezek, otsailean Municheko Segurtasunaren Konferentzian publikoki aurkeztua.

ZER NAHIAGO DUZU, ARMAK EDO GURINA?

Kiel Institutuko Christoph Trebesch ekonomialariak eginiko estatistika da eta G7 osatzen duten herrialde botereetsuen gastu militarren eta gastu sozialaren mende eta erdiko bilakaerak erkatzen ditu. Jerga ingelesean *Guns versus butter* (Armak versus gurina) modelo liberal makroekonomikoa jarraitzen du, eta adierazten du armetan gastatzen dena handitu ahala txikitzen dela zerbitzu publikoetan –erdeinuz gurinarekin konparatzen dena– inbertitutakoa, eta alderantziz.

XX. mende hasieran erabili zen lehen aldiz kontzeptua AEBetan, eta geroztik hamaika agintarien ahotan entzun dugu. Wikipediak zerrendatu dizkigu batzuk. Joseph Goebbels, propaganda ministro nazia: "Ezin dugu gurinarekin tiro egin, armekin baizik". Margaret Thatcher, lehen ministro britainiarra: "Sobietarrak armak lehenetsi zituzten gurinaren aurretik, baina guk dena lehenesten dugu armen aurretik".

EBk austeritatera itzultzeko neurri fiskalak martxan jarriko ditu aurki. Nola ezkontzen da hori armamentuan *gehiago, hobeto, europarrago...* gastatuta?

Trebesch grafikoan ikus daiteke gatazkak daudenean –bi Mundu Gerretan kasu– gastu militarren kurbak gora egiten duela zeruraino, eta gastu soziala aldiz amildu egiten dela. "*Inoiz umilak asarretzian arruak bajatzen dira...*", zioen Txirritak ez arrazoi gutxirekin, eta esaldi horrek berdin balio lezake honetarako ere. Baina Bigarren Mundu Gerraz ge-


roztik gastu militarra "gradualki jaitsi da eta gastu soziala igo, bost aldiz handiago izateraino", azaldu zuen Trebeschek Munichean. Are gehiago, ekonomialariak ziurtatu zuen Alemanian "arrisku geopolitikoa" inoiz baino handiagoa izan arren, joera berak jarraitzen duela eta "deskonexio" bat dagoela.

Halako analisiak ez dira memeloke-riak, ez behintzat esaten direnean Letoniako lehen ministro Evika Silina edo Alemaniako Bundestageko Norbet Röttgen mahaikide dituzula. Municheko Konferentzia nazioarteko segurtasun bilkura inportanteena bihurtu da 1963an sortu zenez geroztik eta Trebeschek goi mailako agintariak zituen entzuten. Youtuben dago jardunaldi osoa zintzilik.

Silinak ahobizarrik gabe hitz egiten du: "Herrialde guztien nahia da bizitza osoan lan egin dutenek pentsio bat jaso ahal izatea, baina estatu baten lehen helburuak bere existentzia, segurtasuna eta burujabetza bermatzea dira". Hala, 2014an Errusiak Krimea bereganatu zuenetik defentsa gastuak igo dituzte-

Armak vs. Gurina

Gastu militarra eta soziala G7 herrialdeetan, 1870-2022. Gobernu zentralen aurrekontuaren batez bestekoa.



MARTZIAN / TREBESCH



ATXEGA JAUREGIA JATETXEA

EGUNEKO ETA ASTEBURUKO MENU BEREZIAK
EKITALDIAK, OSPAKIZUNAK, FAMILIA TOPAKETAK...

USURBIL · 943 37 11 50 · www.atxegajauregia.com



UKRAINA Errusiak herrialde horren kontrako inbasioa hasi zuela bi urte igarotzerakoan, Ukrainako bandera erraldoia zabaldu zuten EBk Bruselan dituen egoitzetako zabalgunean.

la azaldu du lehen ministroak. Letoniak aurten Barne Produktu Gordinaren %2,4 bideratuko du gastu militarra eta plan bat dauka 2027 urterako %3ra igotzeko kopuru hori. Livinaren esanetan NATOko hemezortzi herrialdek jadanik konpromisoa adierazi dute euren BPGren %2 armagintzan gastatzeko.

Mahai-inguru berean Niall Ferguson Harvardeko historialaria zegoen, hedabide hegemonikoetan aski ezaguna, britainiar inperialismoaz duen ikuspegi onberagatik. Aretoan zeuden guztiei kasik errieta eginez, orain arte European izan dugun “bakerako dibidenduaren ilusioa” jarri zuen auzitan: “Alemaniak armetan BPGren %4,5 gastatu beharko luke!”, entzun liteke histeriko xamar bideoan.

DEFENTSA INDUSTRIAKO AKZIODUNAK POZIK DAUDE

Karrera armamentistikoak jadanik suma-

tzen ari den zerbait da. 2022an munduan 2,055 bilioi euro gastatu ziren armetan (BPGaren %2,2), Gerra Hotzaz geroztik inoiz baino gehiago, Bakearen aldeko Ikerketen Stockholmeko Nazioarteko Institutuaren arabera.

Le Monde Diplomatique-eko urtarrikoleko zenbakian Philippe Leymariek –defentsarako gaietan aditua den eta blog bat ere baduen 80 urteko kazetariak– galdetu du ea zeini egiten ote dioten mesede gerrek, eta arma ekoizle handien zerrenda luzea dakar, Lockheed Martin erraldoi estatubatuarretik hasita: RTX, Northrop Grumman, Aviation Industry Corporation of China, Boeing, Leonardo, Airbus... “Errusiak Kieven kontra egindako erasoarekin eta Asia zein Ekialde Hurbileko tentsio geopolitikoekin dopaturik, defentsarako industriak errekorrak ondu ditu eta pozez bete bere akziodunak”, dio kazetari beteranoak.

Baina armetan gastatu eta zerbitzu sozialetan murrizketarik ez egiteko modu bakarra zorra autofinantzatzea da, eta hori soilik AEBek egin dezakete, dolarrarekin: “Europaren berrarmatzearekin egokituko da lehentasunak birdefinitzea”, dio Manel Pérezek *La Vanguardia*-ko bere artikuluan. Bere ustez, jadanik husten ari diren agenda berdearen karpeta gain –nekazarien protestak baliatuta– badira beste karpeta batzuk eskua sartzeko modukoak, pentsioena, osasungintzarena edo immigrazioarena, adibidez.

Manu Robles-Arangiz Fundazioak *Zorra, menderatzeko tresna* izeneko azterketa egin du, ELAko kide Xabi Zabalak aurkeztua EBren agenda berde eta digitalari buruz Bilbon berriki antolatutako mintegian. “Militarizazio ahotsak edonon entzun daitezkeen garai batean gaude –dio Zabalak–. Kontziente izan behar dugu lehia geopolitiko baten tesuinguruan gaudela. Esaten digute gastu militarra igo behar dela, eta bestetik, ezin dugula gastatu %2,6 baino gehiago. Aritmetika hori posible egiteko, murriztu daitezkeen toki bakarra gastu soziala da”. Eszenatoki horretan, austeritate planak “gerra makina” direla irakur daitezke azterketan.

“Hate and war, the only things we got today”, kantatzen zuten 70etan The Clash taldeko Joe Strummer mitikoak. Alegia, gorrotoa eta gerra zirela orduan zituzten gauza bakarrak, eta apropos gainera, goiko klaseek finantzak eta gizartea kontrolatzeko erabiltzen zituztelako gorrotoa eta gerra, marjinatuenak eta junkie-ak elkarren kontra jartzearaino. *Hate, hate, hate...* Punk erritmoz errepika bera kanta dezakegu gaur egun, zorra, droneak, gosea eta adimen artifiziala tarteko, iguala baita harro eta umilen arteko dominazio zakurra. ●



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia

T. 943 420 624

zinkunegioptika.com



Anari Alberdi

ZAZPIGARREN AZALBERRITZEA

“

NIRE EREMUA
SOZIOPOETIKA DA

”



Martxoaren 1ean elkartu gara Anarirekin, *Giza zarata* argitaratu eta biharamunean. Andoingo poligono batean egin dugu hitzordua: han dauka taldeak entsegu-gela. Poster zaharrez eta instrumentuz inguratuta hitz egin dugu, alboko gelakoen erritmoez lagunduta. Larunbatean, hilak 16, lehen aurkezpen-kontzertua emango du Donostian.

 DANELE SARRIUGARTE MOCHALES  IBAI ARRIETA / ARGIA CC BY-SA

Atzo atera zen diskoa, zer moduzko sentsazioekin zaude?

Gustura nago, lasai. Igual atzo euforia, kulpa eta malenkonia, hiru gauzak batera sentitzen nituen. Orain dela ez hainbeste entzun nuen diskoa osorik, eta bilatzen nuena, nik nahi nuena disko honetan egin, demagun jarrera artistikoz, uste dut badagoela.

Zer lortu nahi zenuen?

Nik behar nuen nire burua eraman arrisku-eremu batera. Leku eroso batean sentitzen nintzen, eta behar nuen hori haustea berriz. Beste pauso bat eman nahi nuen idazkeran ere.

Irakurketa kolektiboagoetarantz? Metafora konkretuagoetarantz?

Bai, hizkuntza zuzenagoa edo.

Hori izan da zure apustuetako bat idazkeran?

Bai, hori izan da intentzio bat. Banentorren despoetizazio batean lehendik ere. Beste era batera idaztea ez da azal hau kendu eta beste bat janztea; azalari buelta eman behar diozu, zure azaletik egin behar duzu. Gainera gure ahots poetikoak oraindik eta erreberberazio askoz gehiago dauzka, ze kantatu egin behar duzu, hor egon behar duzu. *Kontinente zaharra* bezalako kantu lehor bat kantatzen, Poliziak eta Schengen dauden kantu bat kantatzen nik egon behar dut, nik bilatu behar dut hori nola esan: uste dut hori dela zaila.

Zein izan da apustua musikalki?

Niri gustatzen zaizkit disko desberdin eta dinamikoak, horixe egiten saiatu naiz beti. Agian azkenaldian pultsu hori pixka bat galduta neukan, eta hori ere behar nuen, dinamika kantuetan egotea. Saiatu naiz alde batetik kantu dinamikoki desberdinak egiten alderdi musikalean, eta gero letra akura-

tzen benetan (existitzen da aditz hori?). Esan nahi dut kantu bakoitzari bere letra sartzea, kantuaren giroan bere letra sartzea. *Troiako zaldia*, adibidez, niretzat prozac-a da: melodia, teklatu psikodeliko horiek... Oso gauza sentsoriala.

Kantu horretatik abiatuta zutabe bat argitaratu du gaur Irati Zubiak *Berria*-n. Hala dio: “*Epilogo*-n marraztu zituen Anarik norbere tristuran lorrintzeko osatu den egitura eta industria. *Troiako zaldia*-n akaso, argiago kokatzen du subjektu melankoliatsua Mendebaldeko zibilizazioaren gainbeheran”.

Zuk, azkenean, artefaktu poetiko edo artistiko bat egiten duzu, ez teoria bat. Jakina, kantua sortu aurretik, badago garaiaren analisisa, begirada eta bilaketa, enfoke bat, baina emaitza kantu bat da. Nik giro bat nahi dut lortu, ez dut nahi tesi bat esplikatatu kantu honetan. Bertigo pixka bat ere ematen du letrak horrela analizatzeak.

Ulertzen dizut, baina normala ere bada hori gertatzea. Zuk egin dituzu kantuak zure poetikatik, baina testuinguru batean ateratzen dira eta esango nuke halako analisiak estimu-erakustaldiak direla.

Bai, bai, noski. Oso ondo hartu dut. Ohore bat da jendeak horrela hartzea kantuak eta hori dena iradokitzea, eta *Kontinente zaharra* kantan, adibidez, badago [Zigmunt] Baumanen esaldi bat, baina hori ere ez da teoria soziopolitiko bat, ez dagokio. Nire eremua soziopoetika da, ez soziopolitika. Kantuak dira.

Iruditzen zait kontatzerantz egin dutela pixka bat zure abestiek.

Bi gauza dira. Batetik badaude holako enumerazio batzuk, *Oreinak*-en egon ahal ziren bezala. Eta gero, nire buruari jarritako erronka txiki horien artean, *Ez nengoen han* bai da narrazio puru bat, izan zitekeena *Efemerideak* ere, baina askoz gehiago kostatzen letra hau idaztea; bertsio asko eduki ditu.

Disko honetan leku berri bat bilatu dut, aurkitu dudala ere sentitzen dut, eta lehen euforia-kolpea *Ez nengoen han*-en eduki nuen. Esan nuen: bai, hau sinesten dut, sinesten naiz kantu hauetan, hemen. Sortzaile bezala, 25-26 urte diskoak egiten daramatzazunean, zure buruari bat-batean irekitzea beste espektro bat, ederra da. Adibidez, bakarrik orain egin ahalko nuke *Vesna Vulovic* bezalako kantu bat, autoironia horrekin eta gauza askoz desdramatizatua bat.

Beste modu batean idazteko premia hori zergatik edo noiz sortu zitzaizun akordatzaren zara?

Bazetorren lehendik, eta *Piromania* kantuak ere nahiko ireki zidan espektro poetikoa, baina *Piromania*-n, demagun, ni nengoen barruan. Orduan, imajinatu *Piromania* baina ni barruan egon gabe, hori da pixka bat pausoa. Gero akordatzaren naiz pandemiatik atera ginenean jo behar genuela Principalen, eta beste era bateko kantu bat behar nuen. Saiatu nintzen kantu bat egiten eta baneuzkan ideia batzuk, baina ez nuen lortu, eta orduan *Vinu, cantares y amor* grabatu genuen; behar horretatik zetorren.



Oroitzen zara zer zen behar zenuena?

Idatziko dut alutik irteten didana, hainbesteko transzendentziarik gabe. Disko hau askoz era libreago batean egin dut”

Behar nuen nire burutik atera. Nagia ematen zidan *Harriak* kantatzeak, edo gauza super intimo bat kantatzeak. Azkenean bidea beti da mugimendua, beti da mugitzea, mugitzea, eta nire lekua horrantz zen. Eta gero sentitzen dut disko honetara ailegatu naizela liburuaren bidez [*Gari eta goroldiozko* eleberria argitaratu zuen 2022an Susa argitaletxearekin].

Zer zentzutan?

Liburuan egin dut gauzen etengabeko berrazterketa eta birbegiratze politiko hori. Liburuaren tonuarekin bilatu

Anari Alberdi Santesteban

AZKOITIA, 1970



Musikaria eta idazlea. *Gari eta goroldiozko nobelaz aparte* (Susa, 2022), iaz *Demoliciones controladas* (Eraiste kontrolatuak) argitaratu zuen Pepitas de calabaza-ren eskutik: bere kantuen letrak biltzen dira liburu horretan, euskaraz eta gaztelaniaz. *Giza zarata* du zazpigarren diskoa (lehen, *Anari*, 1997an kaleratu zuen). Azkenaldikoak ez bezala, hau ez du Bidehuts zigiluarekin plazaratu. Horri buruz, zera esan digu: “Bidehutsen daude gehien maite eta miresten ditudan musikariak eta lagunak. Ez da erraza izan erabakitzea, baina; dramarik gabe, gauza desberdinak egiteko gogoia dut, eta lanerako egitura arinago bat behar nuela sentitzen nuen”.

nuen begiratzea gauza askoren atzean ezkutatzaren diren beste gauza politiko, sozial, eta abarrei. Adibidez, hor pareko paisaiari begiratzen diozu eta ikusten duzu industrializazioa, ikusten dituzu pinuak. Nik uste dut bide bat dela, baina baita ere sentsazio bat, garaiaren sentsazio bat, eta nagia nire buru intimoari buruz kantatzeko; oraintxe ez daukat batera gogorik.

Duela hamar urte ezagutu genuen elkar. Esango nuke hor mugarri edo aldaketa-momentu batean zeundela zure kantagintzan: irlaren eta aurrekarien artean. Nola oroitzen duzu garai hura?

Nik momentu hori, artista bezala, identifikatzen dut bat-batean entzuleak izen-abizenak dauzkan garaia bezala, eta da Twitterren garaia eta sare sozialen garaia. Holako gizarte askoz interkomunikatuago bat. *Irla izan*-en guk geneukan MySpace baina *Zebra*-n geneukan Fotolog eta *Habiak*-en Internet justu-justu existitzen zen; hortik gatoz. Orduan garai hori izan zen seguru asko nik entzuleak gehiena ezagutu nituen garaia, tartean zu.

Gero, garai horrek, zu eta zuen belaunaldia ezagutzeak, nire kantuak entzuteko eta jasotzeko zuen moduak eman zidan nire kantuen beste pertzepzio bat, askoz aberatsagoa, askoz kolektiboagoa. Horren adibide bezala, askotan aipatzen dut *Amua* abestia. Bakarrik eta oso bakarrik idatzi nuen, bakarrik baino bakarrik, eta hor bihurtu zenuten edo bihurtu zen beste zerbait, garai horretan. Garai

horrek beste kokapen bat ekarri zidan artistikoki eta pertsonalki.

Garai batean kontzeptu bati tiraka lantzen zenituen diskoak. Orain arte kontatu didazunagatik esango nuke kasu honetan ez dela hala izan.

Disko honetan ez dut bilatu kontzeptu bat, disko honetan kantuka egitea joan naiz. Baita ere, *Bunkerra I* eta *Bunkerra II* kantuak lehenengo hartaldian daude grabatuta, akats eta guzti, zeren nahi nuen, behar nuen, berriro konektatu Anariren lehen diskoko beste arrisku-eremu batekin, biluztasunarekin, baina biluztasun sonoro bat. Askotan kantua egiten duzu eta egitearen egitearekin, jotzearen jotzearekin, grabatzearen grabatzearekin, konpontzearen konpontzearekin, bezatu egiten duzu, eta askotan kantua da gauza basati bat. Pultsio hori mantendu nahi izan dut kantu batzuetan.

Egia esan ez nekien nolakoa izango zen disko hau, baina Zure aurrekari penalak eta oso gutxira Epilogo bat atera zenuenez –askoz disko jostariagoa–, eta gero kantu solte batzuk, pentsatzen nuen: ez du egingo berriro disko kontzeptual bat.

Epilogo da disko arin bat, eta *Epilogo*-rekin nire buruari esan nion: “Anari, honek ezin du hola izan”. Pentsatzen dut zuk ere idazketan egin duzula hori, edo beste ariketaren batean. Honek ezin du izan holako prozesu





autosuntsizaile bat, eta idatziko dut alutik irteten didana, hainbesteko transzendentziarik gabe. Disko hau askoz era libreago batean egin dut. Aldi berean oso gaizki pasa dut, muturreko presio-egoera bateraino eramaten dudalako nire burua disko oso bat egiteko, baina igual hori da disko bat egiteko arrazoia; kantuka egingo bazenu, orain botako banu kantu bat edo zuk narrazio motz bat, desberdina da, baina liburu oso baten bila joan behar baduzu, obra handi baten bila joan behar baduzu, pasa behar duzu obsesio-momentu bat, ez zaizu erori behar prozesu osoan, egun hobeak edo txarragoak izan arren, eta orain ere nik asko sufritu dut, asko sufritzen dut. Esango dizut: ahots bat bi aldiz grabatu dut hitz bat aldatu nahi niolako.

Ai...

Baina beste leku batetik izan da. Eta nire lekua, hasieran esan dizudan bezala, nire minimo exigiblea da arriskua, eta mugimendua; hori da Anari niretzat. Arriskua izan daiteke baita ere gauza gozoago bat egitea. Imajinatu nik datorren diskoa pianoarekin bakarrik egingo banu, arrisku bat da; arriskuak ez du zerikusirik kaña-



rekin edo gitarrarekin, baizik eta egon ez zaren leku batera joatearekin.

Irakasle aritu izan zara urte luzez. Lan horretan etenaldi bat egin duzu azken urteotan. Apustu bat izan da?

50 urte egin nituenean nire buruari oparitu nion urte bat idazteko. Eta, bizitzaren kasualitateak, asko jotzen ari gara eta oraintxe bizi naiteke hortik. Uste dut bueltatuko naizela irakaskuntzara, asko gustatzen zait, pila bat ematen dit; ez zait gustatzen holako bizimodu bat, goizean

jaiki eta musei dei egin. Irakaskuntza, niretzat, bizitza da, lokatza da. Irakaskuntzan zaude bizitzarekin eta gizartearekin super konektatuta.

Aldaketa horrek eraginik izan du zure jardun artistikoan?

Kantitatez, dudarik ez; azken hiru urteotan gauza pila bat egin ditut, baina kalitatez ez dakit esaten. Errazagoa bada, dudarik ez: jaiki eta horri ekin. Nik luxuzko salbuespen-egoera bat bezala bizi dut.

Gari eta goroldiozko-n idatzi duzu: “Feminismoa: pauso txiki bat gizonarentzat. Pauso erraldoia gizateriarentzat”. Zer motako pausoa izan da zuretzat?

Erabatekoa. Nik esango nuke bi pauso edukiko nituzkeela nire bizitzan. Ez naiz holako familia euskaltzale tradizional batekoa, eta nire gurasoak super politikoak, orduan uste dut lehen pausoa izan zela euskaldun bezala kontzientzia hartzea hogeita piko urterekin, eta bigarrena dudarik gabe izan zen feminismoa. Holako birkokatze politiko bat munduan.

Euskaldunarena, musika egiten hasi aurretik izan zen?

Igual momentu horretan. Askotan esplikatu dut, adibidez, nik bateria jotzen nuela beste talde batzuetan, ingelesez kantatzen genuen, eta Azkoitian ez zegoen batere tradizioz euskaraz kantatzeko; Azkoitian oso arraroa izan zen ni euskaraz kantatzen hastea. 26 urte neuzkan eta seguru asko momentu horretan hartu nuen kontzientzia hori, segur asko baita literaturaren eta musikaren bidez ere, baina hartu nuen kontzientzia bat oraindik ere badaukadana: subjektu politiko bezala euskalduna naiz.

Eta transfeminismoa?

Zuk aipatu duzun momentu horretan izan zen, duela hamar urte. Genealogia guztia kontuan hartuta baita ere, baina egia da nik ez dudala militatu nire adineko jendearekin edo ez naizela hor egon. Niretzat kristoren potentzia izan zen zuk aipatzen duzun momentu hori, zuen generazioaren bidez, hor berriz ere badago beste kapa politiko bat, erabatekoa; eta gero hortik aurrera, lesbiana bezala edo bollera bezala badago beste bat ere. Ez dakit continuum bat den edo ez, baina hiru horiek aipatuko nituzke nire koka-pen politiko gisa munduan.

Gero, noski, irakaskuntzako langilea izan naiz eta orain musikaria, hori ez dago kontrajarrita beste denarekin. Esan nahi dut ez naizela pertsona politikoa identitateetik bakarrik; pertsona oso politikoa izan naiz beti nire jardunean, bai irakaskuntzan baita musikari moduan ere. Niretzat orain ekuazio faltsu bat dago horrekin.

“Irakaskuntza, niretzat, bizitza da, lokatza da. Irakaskuntzan zaude bizitzarekin eta gizartearekin super konektatuta”

Feminismoarekin, beste ikuskera kontziente eta politiko denekin bezala eta batera, dena askoz gogorragoa eta interesanteagoa da: mundua eta sorkuntza, eta dena. Niretzat erabateko eragina izan du. Horra ere berandu iritsi nintzen eta gaizki seguru, nire egoskorkerian.

Askotan entzun izan dizut publikoan gertatu zela aldaketa bat. Masa kritiko bat lehen lerroan. Zuk horretan nabaritu duzu?

Noski, nire publikoa zuk aipatutako garaian aldatu egin zen. Lehen lerroak emakumez bete ziren, orroka kanta-

tzen zuten emakumez. Gizonen, eta gizon musikari zenbaiten aldetik, mespretxu-aire bat iritsi zitzaidan. Instant batez sinetsi ere egin nuena. Hor hazi naiz, beraien kodeetan.

Baina, feminismitik bakarrik iritsi zaitezke horri buelta eman, eta hori harrotasunez bizitzera, edo naturaltasunez. Gizonak gizonekin identifikatu dira beti, orain ere bai, eta identifikatuko dira. Orain gertatzen dena da emakume asko emakumezkook egiten dugunarekin identifikatzen direla bereziki, eta ez hainbeste gizonek egiten dutenarekin, eta horrek arazo bat sortzen du, die. Berez, ispi-luaren beste aldea baino ez da. Beste erdia. ●





Momo eta mo-mo



NORA SALBOTX ALEGRIA
MAISTRA

Gizon grisak deslai dabilta han-hemenka. Ikusi zaie kontrol gehiago agintzen askatasunaren aberri handiaren izenean –segun, berdintasunaren, jakobinismoaren eta haurridetasunarena ere badena–. Ikusi zaie ordena eta segurtasunaz solasean eta, mugez zelatatzeaz hitz egin bidenabar, eskolameak uniformeaz mozorrotuko dituztela agintzen. Ikusi zaie zernahi erranez haur, nerabe eta gazteak beraienak balira bezala, berdin maisu-maistrak, eskolak eta kolore eta gustu guztiak, beraienak. Litekeenez eskolak amestu zituztelako homogeneotasunaren eta diziplinatze patriarkal burgesaren instituzio gisara. Agian.

Gizon grisak lazo dabilta han-hemenka. Ikusi zaie gorazarre egiten Youtuberi, Google, Microsoft eta enparaei, eta delako horiek guztiak irakasle bikainak direla deklamatzan. Ikusi zaie, ikusi, maletatxo eta onddo-zapel griseko gizon grisei, haien hezkuntza sistemen digitalizazio plan hipergaratu eta gain-modernoak loriatzen, fite maisu-maistrarik beharko ez dituztelakoan. Ikusi zaie adimenetan naturalena ere erdeinatzen, artifiziala bai baita etorkizuna. Irakaslerik hoberena baino hobeak diren bideo kanalak haizatu eta trukean arrantzatutako *like* eta *fav* saldoan putzu-putzu egiten. Aritu dira ere diskurtso makinista distopiko grisak ematen haien orrazkera grisen ile urdin bakar bat ere harrotzen ez zela. Begietara be-

Diote gauzak
aldatu ez daitezen
hoberen-hoberena dela
ondorengoek ere ez
dezatela ikasi hizkuntza
errebeldia. Ez daitezela
“pribilegioak” bermatu
auzo eta herri guztietan

giratu zien hondar maistraren usaina, ahotsa, ibilkera ahantziak dituztelako izanen da akaso. Edo Swing kapitain berriak ez dituztelako paraje hauetan berehalakoan espero. Agian.

Gizon grisak ziroka dabilta han-hemenka. Denbora-zigarreta grisak pipatu ahala, euskara pribilegioa baizik ez dela diote. Eta diote, diotenez, pozarren daudela hezkuntzaren bitartez nazio eraikuntza egin nahi dutenen kontrako lubakian egoteaz, beraiena inondik ere ez delako hezkuntza erabiltzea, ez nazio eta ez eraikuntza. Babelgo dorrean bazenik eta hizkuntza zailena ez dakitelako baztertuta daudela diote, ondoko lau urteetarako pare bat sailburutza gustura hartuko lituzketela ere bai. Eta diote,

diotenez, euskara eskakizuna malgutzeta dela hoberena, ez bada eskakizuna bera tinbredun paperean bilduta pipatzen dutela. Gauzak aldatu ez daitezen hoberen-hoberena dela ondorengoek ere ez dezatela ikasi hizkuntza errebeldia. Ez daitezela “pribilegioak” bermatu auzo eta herri guztietan, eskola orotan eta ikasle ororentzat, hori baizik ez genukeela falta eta bizi daitezela, aunitz urtez eta bertze hainbertzez, hizkuntza ereduak heziguneetan. Gezurrak, desirak eta egiak *on the rocks*, glu glu glu glu, pitxerra ongi baino hobeki hustu arte. Sikiera koktela euskaraz zerbitzatuko ez balitzaie, agian...


Gizon grisak alderrai dabilta han-hemenka. Grisez pintatu nahi dute hezkuntza, ilunez ahal dela. Michael Enderen *Momo* liburuan gizon grisek etorkizuneko giza materiala bezatzeko beharra zeukaten, jatorriaren arabera haurrak banandu, uniformeaz jantzi, jolasetik kendu eta gordailuetan pilatu. Gizon grisen amets grisetan propulsiobidezko makinak eta burmuin elektronikokoak ziren etorkizun desiratua eta, haren peskizan, denbora ebatsi eta irri karkarak erneguzko harrabotsekin ordeztu beharra ziren. Gaur zalantza egiten dut, ez ote gauden mende erdi geroago *mo-mo*, seko lo, amesgaizto grisean kortxelatuta. Agian.

Riiiiiiiiiiiiin. “Eskolaraaaa! Akabo gaua, mo-mo zeunden maitte... ala ez? Piztu argia”. Klik! ●

Otsoa dator!



ANE ABLANEDO LARRION
IRAKASLEA



PAULA ESTÉVEZ

Gizakiak istorio kontatzaileak gara, hainbeste, ezen esan ere egin daitekeen narrazio gaitasuna dela gizaki egiten gaituen ezaugarrietako bat. Kontakizunak behar beharrezkoak zaizkigu geure burua eta errealtatea eraikitzeke, eta bereziki aipatzekoa da ipuin klasikoek horretan duten funtzioa –edo kultura partikular bakoitzak dituen istorio partikular baina atemporal horiena–. Barne-garapena sustatzeko eta bizitzaren eremu sakon eta batzuetan ilun samarrek argitzatzeko daukaten potentziagatik, eta bizitzaren une erabakigarriak zein diren ikasteko dakarkiguten jakintza praktikoagatik.

Ipuinen protagonisten eskutik asko ikasten dugu gure bilaketa, gatazka eta irtenbide existentzialei buruz, ahalegin berezirik gabe senti dezakegulako geure burua istorioetan islatuta. Ipuinen sustantzia bizitza bera da, irudi simboliko eta arketipiko hutsez irudikatua; hainbeste, non balirudike ipuinak gizateriak asmatutako tresnak direla, bizitzaren etapa bakoitzean izateak dakartzan zailtasunetan lagun egiteko funtzioarekin. Ipuinek geure emozioak, sufrimendua eta garapena tratatzen dituzte, zintzotasunez (nahiz eta ba-

tzuetan bortitzak iruditu) eta sentikor-tasunez.

Normalean haurrendako izan ohi dira ipuinak, nahiz eta batzuetan zailantza ere egiten dugun, hain dira batzuetan sexistak, politikoki ez zuzenak, moralistak, arrosak, edo bortitzak. Edukiaren aldetik hobeki egokitzeko borondatearekin moldaketak jasan izan dituzte, azkenaldian bereziki, baina ni ipuinon eskeleto askotan gordina errespetatzearen aldekoa naiz, hor gordetzen baita hurren garapenean eragiteko ipuinek duten gaitasunaren muina.

Ipuin klasiko hauetan otsoarena da niretzat pertsonaia kuttuna, hainbeste istorioren (ko)protagonista eta erdigune. Otsoaren sinbologia oso konplexua eta sakona da, eta oso zabala, horregatik, daukan esanahiaren interpretazioa. Normalean ematen diogun gaiztoaren paperean gelditzea oso irakurketa sinplista da, irudi horretatik areago, oso dimentsio positiboetan ere ulertu daitekeelako otsoaren papera.

Hiru txerrixoen ipuinean, adibidez, otsoa da putz eginez lehen bi etxetxoak apurtzen dituen, bai, egia da. Baina iritsiko ote ziratekeen txerrixoak etxe sendoa eraikitzen otsoak hori egin ez balu? Otsoak, bestela erdietsiko ez zu-

keten garapen maila handiago batera bultzatzen ditu txerrixoak, garapenearen metafora ederra eskainita, bizitzan aurrera egin ahala eraikinek (eta harremanek) eduki beharreko sendotasun handiagoaren beharraz, eta kokaleku existentzial zaharrak atzean uzteak sortzen duen minaz eta beldurraz.

Txanogorritxoren ipuinak autonomiaren bilaketa irudikatzen du, protagonistak amaren aholkuei ez entzuenarena egiten dienean, edo amonaren suntsipenaren irudian. Otsoa, hemen, identitate-aldaketaren prozesuko arrisku, galera eta mamuen irudia da, horretan ere barne eraldaketaren aliatu.

Otsoa ezinbestean da anbibalentea. Gogorra baita bizitzan otsoa agertu zitzaiguneko garaia igarotzea, jakina, baina askatuko ote ginen jadanik emankorra ez zitzaigun harreman horretatik, edo kateatuta gintuen dena delako leialtasunetik otsoak une horretan jan ez bagintu? Libertatea ezin da lortu basoan liliak bilduz denbora-pasa atsegin hutsean, Txanogorritxok irudikatatu zuen bezala, norbera izatera iristea otsoaren eskutik baizik eskuratu ezin den altxor preziatua delako. Otsoa, zenbat eta beldurgarriago, orduan eta beharrezkoago. Ez ahantz. ●



**JOSE IGNAZIO
ANSORENA**
TXISTULARIA

Ez dut moztuko bizarra

Saya da mayaz iyeen behin igotzea. Hori esango digutelaren susmoa dut. Antigoaleko kaskamelon ni, irratian horrelakoak entzutean, zapuztu egiten naiz. Eta biloben eskolako haurrak *Txipitxapa, Korrika!* oihukatzen eta berehala erdara garbiaz mintzatzen ikusten ditudanean, etsiak hartzen nau.

Botika homeopatikoa. Aita Donostiaren gutun-bilduman, ehuneko 99'99 erdaraz, euskarazko mikro-pusketak daude: *“Nonnai arkitzen omen du ezjakiñak zer ikasi dakitenean itzetan (...). Erderaz, errazago izango delakoan, esango diot zertaz ari naizen (...). Biotzez, Luis Mitxelena 1956-05-11”*. Alegia, Koldo Mitxelena Aita Donostiari, kontu konplexu eta garrantzizkoei buruz hitz egiteko, erdarara jo behar izan zuen, ziur aski kaputxi-noaren euskararen mailaz jakitun.

Euskaltzaindiaren batzarrak ere, XX. mendearen erdira arte ez ziren euskaraz burutzen. Pixkana, ahalegin neketsuetan, ezin konta ahala bidegabekeriak pairatuz... aurrera egin dugu. Gutxi izan eta eutsi. Orain izutzen hasi gara: epaileek eta politikari hainbatek lotsa galdu eta urteetan gorderik izan duten hankatxoak erakustea jada ez zaielako inporta. PPren kanpainarako gai izar dator *“Euskararen eskaera lanpostua tinkatzeko bertan behera uztea”*. Javier de Andrések esana.

Ez izan beldur. Eurak dabilta eta beldurrez. Euskaldunak gehiegi hazi garela

sentitzen dute, dardara hanketatik gora doakie eta zirina behera. Euskarak beldurra eragiten die, kontrolaezineko zerbait zaie. Oso primitiboa.

Ez da harritzekoa, euskaraz borbor-ka gabiltza eta. Juan Luis Zabalaren *Dimisioa* liburu ederrak etorkizuneko munduaz prospekzio interesgarri-barragarriak dakartza, *Agintzaritza Global Konputarizatuak* bizitzako arlo gehienak gobernatuko dituen iragarpen modukoa. Iratxe Ormatzak a zer astindua gizonetzkoen begiradari *Printzak begietan* ipuin bilduma sendo zirrargarrian. Bonok (kantariak ez, Amaiak) akasdunen eskubideak aldarrikatzen ditu. Batzuk galdezka euskararen erabilera erraztu behar ote den, ergatiboa desagertu, subjuntiboa ezabatu... Beste batzuk, hitanoa hedatu beharrez, *xoka* erabileraren aldekoekin topatu dira. Kontuz, *Xokazoleak*, azpieuskalki hori Mirrik asmatu eta patentatu zuen aspaldi, baxenabartar batzuekin batera.

Harkaitz Canok *Ulu egiteko bolondres bila* poesia liburu zirikatzailean esana: *“Euskaldunok hizkuntzatik konkistatzen gaituztelako sarri”*. Ni bai behintzat eta, bizitzaren arlo guztietan, *heteromalgua* naizela ozen aitortu behar dut. Baina, mesedez, manifestazioetako leloak megafonoan bideratzen dituztenei euskal doinuez ikastarota eman. Bestela, ez dut moztuko bizarra. ●



CASTILLO SUÁREZ
IDAZLEA

Autoatseginkeria

Yolanda Castañori Espainiako poesia sari nazionala jaso zuenez geroztik hamaika elkarrizketa egin dizkiote. Horietako baten lerroburua deigarria egin zitzaidan, esaten baitzuen saria irabaztea izan dela egin duen bigarren gauzarik zailena. Eta berehala hasi nintzen beretzat gauzarik zailena izan denaren bila: poesia izatea ogibide, hain zuzen ere. Autoatseginkeria izpirik gutxitan sumatzen zaio Castañori, beti esaten baitu muturreraino saiatu behar dela sortzailea. Ahalik eta poetarik onena izaten saiatu

behar dugula, eta ez errepikatu erabilitako formulak, iraganean funtzionatu digutenak barne, horrek sortzaile gisa hiltzen gaituelako. Elkarrizketa Adunan irakurtzen ari naiz, Elkarrek banaketarako duen biltegiaren parean. Eraikinaren ondoan plastikozko karpa bat dago, hori ere liburuz betea. Eta ez zait modu hoberik bururatzen autoatseginkeria ezabatzeko: liburuz betetako industria-habearte handi bat. Badakizulako jakin zure liburua ez dagoela handik ateratzen den kutxetan. Edo beharbada bai. ●

Desjabetze bidezko metaketa berriztagarria



ROSER ESPELT ALBA
EKONOMIALARIA

Zertara dator gure herria zentral eolikoz eta eguzki-plakaz betetzeko urgertzia hau? Bistan da, arrazoi agerikoena klima aldaketari erantzuteko premia dela, erregai fosilak iturri berriztagarriekin ordezkatzekoa. Hain zuzen, hori omen da Europako funtsen zein estatu eta autonomietatik bideratzen ari diren gainontzeko funts publikoen helburua. Hala ere, funts horiek betiko zaku berean amaituko dute, hau da, Acciona, Iberdrola, Siemens Gamesa eta energia enpresen *dream team*-a osatzen duten gutxi horien eskuetan. Sorpresa handiegirik ez, bultzada publikoa beti izan da berriztagarrien garapenaren ezinbesteko baldintza, eta beraz, inbertsio publiko horren atzean ez dugu topatuko gobernuen kontzientzia ekologistaren bat-bateko esnatzerik, ez energia-merkatua demokratizatu eta deszentralizatzeke xederik.

Berriztagarrien ekoizpena gidatzeko hautagai aproposenak betiko energia-ekoizleak izateak aukera logikoena dirudi, errealistena urgertiaren aurrean.

Inbertsio publikoaren atzean ez dugu topatuko gobernuen kontzientzia ekologistaren bat-bateko esnatzerik, ez energia-merkatua demokratizatu eta deszentralizatzeke xederik

Baina egia deseroso bat ezkututzen da horren atzean: erregai fosilak direla forma, baina irabazi pribatuak funtsa. Horren erakusgarri da berriztagarriak gehien garatu diren tokietan erregai fosilen kontsumoa ez dela gutxitu; aitzitik, energia-kontsumoak gora egin du.

Euskal Herriko enpresa kutsatzaileenak itxi eta iturri berriztagarrien ugartzeak, herritarren beharrak asetzeko

oinarrizko ekoizpen-kateak garatu gabe, emisioen zenbakiak apaintzeko balio dezake, baina gure egiazko aztarna ekologikoa berdin-berdin handitzen joango da. Izan ere, petrolioak da kapitalismo garaikidearen zainetan dabilen odola, horrek ahalbidetzen ditu mundu-mailako ekoizpenaren banaketa, gure kontsumoa eta nazioarteko merkataritza, finean, globalizazioa. Hala, industria kutsatzaileen ixtea ere ez da nobedadea: deslokalizazioak dira, ingurumen- eta lan-kostu baxuagoek bultzatuak.

Hemen funtsezko galdera: zer nahi dugu, klima aldaketa gelditu edo klima aldaketara egokitu? Energiaren, elikaduraren eta garraioaren industriaren espropiaziorako kontsentsua eraikitzeari uko egitea, eta trantsizio-ekologiko baterako ezinbestekoa den planifikazio integralaren alde lan ez egitea, klima aldaketa gelditzeari uko egitea da. Desjabetze bidezko metaketa-prozesu berriei, deslokalizazio berriei eta emisio berriei ateak irekitzea da. Konponbideak behar ditugu, eta lehenbailehen, gainera, eta betikoa egiten jarraitzeak aukera pragmatikoena dirudien arren, ez da inoiz konponbidea izango. ●

bertako
igogailuak | ascensores
KORRIKAN ERE

EUSKARA,
GURE HELBURU
PARTEKATUA

GIPUZKOA 943 903 450 ARABA 945 712 822 BIZKAIA 946 523 935 NAFARROA 848 870 917



bertoko.eus

Arabako BERTSOLARI TXAPELKETA Finala 2024



MARTXOAK 16, Larunbata 17:30ean
GASTEIZKO, Printzipal Antzokian



Aroa
Arrizubieta
Barredo



Asier
Otamendi
Alkorta



Iñaki
Viñaspre
Simon



Manex
Agirre
Arriolabengoa



Paula
Amilburu
Izargarai



Peru
Abarrategi
Sarrionandia

Gai-emailea: Oier Suarez Hernando

Aurkezle: Nieves Del Alamo Gil

www.bertsozale.eus - principalantzokia.janto.es



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala



arabako
bertsozale
elkartea

AUKERA GALDUA

EAE-KO SEKTORE PUBLIKOA EUSKALDUNTZEKO DEKRETUA

Eusko Jaurlaritzak EAEko Euskal Sektore Publikoan Euskararen Erabilera Normalizatzeko Dekretua onartu du otsailean. Duela 27 urteko dekretua ordezkatu du. Euskaingintzako eragileen ustez, Jaurlaritzak ez du baliatu "jauzi ausarta" emateko. Dekretu berriak ez du bermatuko herritarrek euskarazko zerbitzua jasotzea, ezta administrazioko langileek euskaraz lan egin ahal izatea ere. Eragileek kritikatu dute oldarraldi judizialaren aurrean ez duela babesik emango.

 ONINTZA IRURETA AZKUNE



Dekretu berriak zertarako balio beharko lukeen hitz gutxitan azaldu du Euskaingintzaren Kontseiluak: herritarrek administrazioan zerbitzua euskaraz jasotzeko duten eskubidea bermatu beharko luke; euskaraz lan egingo duen administrazio baterako trantsizio-prozesua marraztu beharko luke, eta horiek lortzeko epe eta neurri zehatzak finkatu. Gehitu du euskararen normalizazioan ematen diren urratsak juridikoki babestu beharko lirartekeela, batez ere oldarraldi judizia-



2018an, Barakaldon. Osakidetzako lan eskaintza publikoko azterketa egiten.

MARISOL RAMIREZ / FOKU

laren giro honetan. Bada, dekretuak ez die erantzuten erronka eta behar horiei. Kontseiluaren ustez, "badago aukera jauzi sendoagoa emateko, baina aukera horri uko egin zaio", nahiz eta onartzen duen badirela hainbat aurrerapauso. Bestalde, Kontseiluak argi du oldarraldi judizialak dekretua baldintzatu duela eta epaileek ezarritako murrizketak islatu direla dekretuaren azken bertsioan.

UEMA Udalerri Euskaldunen Mankomunitateko lehendakariari, Martin Aramendiri, eskatu diogu dekretuaren

“Oldarraldiari aurre egiteko euskara legez babestea ezinbestekoa da, eta ez epaiei ihes egiteko zirrikituak eta salbuespenak onartzea”

Martin Aramendi
UEMAko lehendakaria

balorazioa. Bere iritziz, dekretuak aurrerapausoak badakartza ere, aukera galdua da: "Entitate publikoen borondatearen esku uzten du euskararen normalizazioa, eta batzuetan baita herritarren hizkuntza eskubideak betetzeko bermea bera ere". Aramendik galdera bat jarri du mahai gainean: euskal administrazio publikoan egin daiteke lan euskara jakin gabe? Bere ustez, ez, baina dekretuak horretarako aukera ematen du eta emango du, zirrikituak eta salbuespenak onartzen dituelako.

Pello Igeregi ELAko euskara arduranaren iritziz, dekretua prestatu dutenek "uko egin diote gaztelaniaren eta euskararen estatusak berdintzeari". Aurrerapenei "aldaketa kosmetikoak" deitu die eta sakoneko aldaketarik ez dela izan azpimarratu du. Bere ustez, dekretuak arazo nagusi eta ia bakarra dauka: ez du administrazioa euskaldundu nahi, baizik eta egungo egoera mantendu nahi du etorkizunean ere. Dekretuak euskaldunak beti salbuespen egoeran egotera kondenatuko dituela dio, eta herritarrek egoera zaurgarrietan zerbitzua euskaraz jasotzeko dituzten zailtasunak gogoratu ditu: poliziak isuna jartzen dionean, larrialdietara jo eta medikuak gaztelaniaz egiten duenean... Herritarrek zerbitzua euskaraz jasotzeko zailtasunak izango dituzte, eta langileak gaztelaniaz lan egitera kondenatuta egongo dira. Oldarraldiaren testuinguruan kokatuta, Igeregik ez du uste arazoa judiziala izan denik, baizik eta ideologikoa: "Arazoa

"Anbizioz jokatu eta oldarraldi judizialak ezarritako mugak gainditu beharrean, epaitegiek ezarritako murrizketak islatu dira dekretuaren azken bertsio honetan"


Kontseilua

izan da EAJk PSOERI onartu egin diola beto eskubidea, PSOEn mugetan egin da dekretua".

LABeko euskara idazkari Urko Aierbek, gainerako eragileek esan bezala, aukera galdutzat du dekretua, ez delako erantzuten administrazioa eus-

kalduntzeko beharrei, ez euskararen normalizazio prozesuari, ezta etorkizuneko erronkei ere. Euskararen eza-gutzak gora egin du azken urteotan eta langile berri asko euskaldunak izango dira. Bada, bilakaera hori kontuan hartu eta neurri ausartagoak ez hartzea leporatu dio Aierbek Eusko Jaurlaritzari. Dekretuaren helburua langileek euskaraz lan egiteko duten eskubidea bermatzea ere badela gogorarazi du, baina hori neurri zehatzetan ez dela islatzen dio. Bi adibide eman ditu: dekretuan ez dira aipatu euskarazko zirkuituak eta langileei begirako formakuntza euskaraz lan egin ahal izateko.

Aierbek ez du zalantzarik oldarraldi judizialak dekretua baldintzatu duela. Esate baterako, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak dekretuaren hasierako bertsioetan euskarari lehenasuna eman ahalko zitzaiola esplizituki jasota zeukan, eta aipamen horiek desagertu egin dira: "Epaitegietan horrelako aipamenak zigortzen ari dira".



lazio azaroaren 4an, Euskalgintzaren Kontseiluak deitutako manifestazioan 70.000 pertsona inguru elkartu ziren Bilbon. Kontseiluak akordio soziopolitikoak eskatu zuen, euskararen aurkako oldarraldi judizialari hesia jartzeko.

Dekretuaren giltzarriak

ERAGIN ESPARRUA ZABALDU DA

Dekretua Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako euskal sektore publiko osora zabaldu da, 140.000 langile ingurura. Orain arte, eremu batzuk salbuetsita zeuden. Euskalgintzako eragileek positibotzat hartu dute aldaketa, baina azpimarratu dute hainbat eremutan 2033. urtera arte ez dela indarrean sartuko dekretuaren aplikagarritasuna. Eremu horiek Osakidetza, Ertzaintza eta Justizia dira, alegia, sektore publiko osoaren %60. UEMAK gogorarazi du beste bederatzita urtez urratu ahal izango direla herritarren eskubideak, baita udalerrri euskaldunenetan ere.

BERRIKUNTZA: HIZKUNTZA ESKAKIZUN ASIMETRIKOAK

Hizkuntza eskakizunen ahozko eta idatzizko maila desberdinak eskatu ahal izango dira hemendik aurrera. Adibidez, langile bati eska dakiok C1 ahozkoan eta B2 idatzizkoan. Eragileek ontzat hartu dute neurria, baldin eta lanpostuaren beharretara egokitzen bada. UEMAKo lehendakari Martin Aramendiren ustez, neurri horrek balio du gaur egun lanean euskaraz ari diren hainbat langileri "beharrezkoa ez den zama bat gainetik kentzeko". Dena den, malgutasunak arriskua ere badu eta salbuespenak izatea eskatu dute eragileek, bestela "hizkuntza eskakizunen beharpenetarako atea ireki dezake", dio Urko Aierbe LABeko euskara idazkariak.

EUSKARA MAILA EGIAZTATZEKO MODU BERRIAK

Orain arte lanpostuari zegokion euskara maila egiaztatzeke bi modu zeuden: hizkuntza eskakizunaren titulua eta euskaraz egindako ikasketak. Bigarren horretarako aukera Patxi Lopezen gobernuak 2012an onartutako dekretu baten ondorioa da. Hemendik aurrera, lan eskaintza publikoko azterketa euskaraz eginda edo "lanpostuan euskara modu frogagarrian erabiltzea" erakutsita, euskara maila egiaztatutzat eman daiteke. Bi modu berrien alde ona azpimarratu dute hainbat eragilek, baina arriskuak ere

"Dekretuak arazo nagusi eta ia bakarra dauka, ez duela administrazioa euskaldundu nahi"

Pello Igeregi

ELAko euskara arduraduna

garbi antzeman dituzte. Aramendiren ustez, "urrats kualitatiboa da hizkuntza eskakizunak egiaztatzenetik salbuestea hautaketa prozesuan ariketa guztiak euskaraz egiten dituen langilea. Baina euskaraz lan egiteko gai ez den jende asko lanpostuetara sartzeko zirrikitu handia ere uzten du dekretuak, nabarmen".

LABeko euskara idazkari Aierbek kezka hartu du egiaztatzearen malgutzeari. Haren iritziz, orain arteko egiaztatze moldeak tarteko ere, "errealitateak esaten digu badagoela

langile multzo bat ez dena gai euskaraz lan egiteko". Aierbek galdetzen du ea lanposturako azterketak euskaraz eginda edo "lanpostuan euskara modu frogagarrian erabiltzen" duela erakutsita bermatuta dagoen langile hori euskaraz lan egiteko gai dela. Halako egoera baten beldur da Aierbe: "Izan dezakegu egiaztagiria daukan langile kopuru handia, baina errealitateak esango digu ez dela egia, langileok ez direla gai euskaraz lan egiteko". Ez ditu baztertzen egiaztatzeke bi aukera berriak, baldin eta neurriak hartzen baldin badira eta jarraipena egiten bada.

EUSKALDUNTZEKO EPE MUGARIK EZ

Euskalgintzaren Kontseiluak, LABek eta ELAk administrazioa euskalduntzeko proposamena egin zioten Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari 2022an. Hiru eragileek euskalduntze prozesua hamabost urtean garatu zitekeela jaso zuten txostenean. Datozen urteetan, langile publikoen erdiak erretiroa hartuko du eta sekula izan den belaunaldi euskaldunenak ordezkatzeari aurreikusten da.

Pello Igeregi ELAko euskara arduradunaren ustez, "aukera paregabea zen, erabaki traumatikorik gabe, egun lanean ari diren langile guztiak kontuan hartuta, administrazioa elebidun bilakatzeko". "Aukera zen" dio, dekretuak ez duelako jaso 1982ko Euskararen Legeak administrazioa euskalduntzeko ezartzen duen betebeharra gauzatzeko epemugarik. Kontseiluak adierazi du epemuga zehatzak jarri beharko lirakeela, helburuak



Dekretuak hizkuntza eskakizun asimetrikoak aurreikusten ditu. Gerta daiteke lanpostu baterako, idatzian B2 eskatzea eta ahozkoan C1. Eragileek ontzat hartu dute neurria, baldin eta ondo justifikatuta badago asimetria. Beharrezkoa den euskara maila baino gutxiago eskatzeko arriskuak ohartarazi dute. Argazkian, Osakidetza larraldietako langile bat lanean.

bete ahal izateko bitartekoak ere bai, eta neurri betearazleak. Kontseilua- ren ustez, eperik jarri ez izana da de- kretuaren gabezia nagusietakoa.

DERRIGORTASUN INDIZEA EZ DUTE ZEHAZTU

Derrigortasun indizearen eskema ia ez da aldatu, eta beraz, orain arte be- zala, epaitegiek interpretazioak egi- ten segitzeko aukera izango dute, lan- postuetarako euskara murriztearen alde. Indizea entitatearen esparruko euskaldunen eta ia euskaldunen er- diaren proportzioak batuta kalku- latzen da. Indize horrek adierazten du hizkuntza eskakizuna betetzeko derrigortasun data izango duten lanpostuen ehunekoak. Eragileek hainbat aldiz ohartarazi dute indizea zehaz- teko beharraz, eta eskatu dute ez uzteko beheranzko interpretazioetarako aukerarik. Hau da, eskatu dute indizeak "gutxieneko lanpostu kopurua" esan nahi due- la zehaztea, hala, indizeak "gehieneko kopurua" esan nahi duela ulertzeko aukerarik eman ez dezan, horrela ari baitira interpretatzen epaitegietan. Igeregiren ustez, hain zuzen, gatazka judizialaren muina da derrigorta- sun indizea, eta gatazka mantenduko da etorkizunean: "Ondo legoke argitu izan balute derrigortasun indizea kasu guztietan gutxienekoa dela eta hortik gorako in- dizeak ezarri daitezkeela, baina ez dute egin nahi izan". Ñabardura bat sartu dute dekretuan: gutxieneko indi- zea handitu ahal izango da prozedura administratibo baten bidez, Igeregiren iritziz, "prozedura korapilatsua" dena.

EUSKARAZ LAN EGITEKO AURRERABIDERIK EZ

Dekretuak jasotzen du euskara zerbitzu-hizkuntza- tik lan-hizkuntza izateko jauzia. Alabaina, Aramendik azaldu du saiakera modu lausoan eta arinean egin dela. Administrazioak aukera izango du euskaraz aritzeko, baina "beti ere unean uneko erabakien arabera".

Eragileek euskaraz lan egin ahal izateko bidean har- tutako neurri bat nabarmendu dute. Dekretuak euska- razko administrazio-unitateak jaso ditu, alegia, lanpos- tuen %80an, gutxienez, dagokion hizkuntza eskakizuna edo goragokoa egiaztatuta dutenek nagusiki euskaraz beteko dituzte beren eginkizunak. Aldiz, euskarazko zirkuituak eta langileei begirako formakuntza euskaraz lan egin ahal izateko, ez dira jaso. Ez dago aipamenik, ezta ere, euskara lan-hizkuntza izan dadin aurreikusita- ko gomendioak eta sustapen neurriak bete ezean, ezarri beharko lirartekeen neurri zuzentzaileez.

EUSKARARI LEHENTASUNIK EZ

Dekretuaren hasierako zirriborroetan, euskarari lehen- tasuna emateko neurriak eta aipamenak agertzen ziren eta azkeneko bertsioan desagertu egin dira. Euska- rak "lehentasunezko tokia" izango zuela zioen tokian, euskararen "ikusgarritasuna bultzatuko" dela jaso da azkenean. Langileek herritarrei lehen hitza euskaraz

"Izan dezakegu egiaztagiria daukan langile kopuru handia, baina errealitateak esango digu ez dela egia, langileok ez direla gai euskaraz lan egiteko"

Urko Aierbe

LABeko euskara idazkaria

egiteko beharra arautzeko aukera ere bertan behera gelditu da. Eus- kara lan-hizkuntza gisa erabiltzeko betebeharrak moduan ezartzea ere au- rreikusita zegoen, baina azken ber- tsioan dio euskara "ere" erabili ahal izango dela. Euskara lehenestearen alorrek bereziki udalerrri euskaldu- nei eragiten die. Aramendiren ustez, adierazgarria da hasierako zirribo- rroetatik halako neurriak desagertu izana: "Udalerrri euskaldunetan, uda- lak eta erakundeek eredu izan behar dute, eta herriko errealitate soziolin- guistikoa zaindu eta islatu. Badirudi, ordea, dekretu hau horren beldur dela, euskara lehenesteak juridikoki

arazoak dakartzalakoan". Aierbek borobildu du Ara- mendiren ustea: "Hain zuzen, horrelakoxe aipamenak bota dituzte atzera epaitegietan, oldarraldi judizialaren barruan".

45 URTEK GORAKOAK SALBUETSITA

Dekretuaren hasierako zirriborroetan egon, eta on- doren, desagertu den beste neurrietako bat da. Orain arte 45 urteko gorako langileek ez dute izan hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko derrigortasunik. Salbuespen orokortua kentzea jaso zuten lehen bertsioek. Az- kenean, lehengoan geratu da. Horrek esan nahi du beste hogeitaz euskaraz ez dakiten langileek haien lanpostuetan jarraituko dutela. Bestalde, oldarraldi judizialaren baitan ezartzen doan jurisprudentzia berriaren arabera, salbuespen hori interinoen kasuetara zabaltzen ari da. Dekretuak, ordea, jasotzen duena da salbuespena postuaren jabe diren funtzionarioei baizik ez dagokiela.

UEMA-REN IKUSPEGITIK

UEMAk dekretuak jaso dituen bost aurrerapauso (edo hala izan daitezkeenak) azpimarratu ditu. Haietako bi aurreko lerroetan landu ditugu: neurriak sektore publiko osora zabaldu izana eta hizkuntza eskakizun asimetrikoen aukera ireki izana. Horiez gain, beste hiru nabarmendu ditu. Lehenik, ontzat hartu du estatuko administrazioari berari ere, neurriak eskatzeko bidea aitortu izana dekretuak; EAeko sektore publikora za- baltzeaz gain. Aramendik dioenez, "ez du zentzurik herri berean estatuaren meneko edo Eusko Jaurlaritzaren meneko bulegoak egotea eta batzuetan hizkuntza eskubideak ez errespetatzea eta besteetan bermatuta egotea".

Bigarrenik, Udal Legeak jasotzen duen atzerapauso- rik ez ematearen printzipioa jaso du. Eta, hirugarrenik, langileen hautaketa prozesuetan, azterketa euskaraz egin beharra ezarri ahal izatea nabarmendu du UEMAk. Orain arte ez zen hala. Lanpostuetarako ariketa prak- tikoren batean zati bat euskaraz egiteko betebeharra sartu izan dutenean, arazoak sortu izan zaizkie. Ondor- rioz, azterketa zatia gaztelaniaz egiteko aukera bermat- zera derrigortuta zeuden. ●

Lehengo lepotik burua

 MALORES ETXEBERRIA

Hernaniko Udaleko euskara teknikari ohia

1 990eko hamarkadaren hasieran hasi ginen EAEko herri-administrazioetan lanpostuei hizkuntza eskakizunak eta derrigortasunak izendatzen. Lanpostu bakoitzak zer funtzio edo eginbehar zituen identifikatu eta hura euskaraz egiteko zein eskakizun edo profil jarri erabakitzen (1a, 2a, 3a edo 4a). Eta gero zetorren derrigortasunaren indizea aplikatzea. Hau da, lanpostu horietatik guztietatik zeini jarri derrigortasuna, denek ezin baitzuten eduki, orduko legediak arautzen zuelako hainbesteko batek bakarrik izango zuela betebeharrak, ez gehiagok. Hainbesteko hori eremu bakoitzeko euskaldun eta ia euskaldunen kopuruaren arabera kalkulatu zen.

Langileak euskaltegiara bidaltzen hasi ginen, batzuk euskalduntzera eta beste batzuk alfabetatzera. Urte mordoia pasa genuen langileen gaitasuna hobetzeko saioretan, baina horrek ez gintuen, besterik gabe, lana euskaraz egitera eramanez.

Erabilera planifikatzeko aurreneko dekretua 1997an argitaratu zen, hala moduzkoa, eta 2000. urtera arte ez ziren abiatu, administrazio aurreratuenak, planak martxan jartzen. Hamar urte, gutxienez, ezagutzatik erabilerarako jauziak behar zituen tresnak aktibatuta gabe. Hizkuntza politika eta planifikazio aldetik hutsune handia izan zen hura, langileak euskara ikasi bai, baina lan-tokira bueltatzean lehen bezala segitzen zuten, lan-sistema ez zegoelako prest euskaraz funtzionatzeko. Bitarte horretan, langilearen euskara gaitasuna



DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

Urte mordoia baterako funtzionamendua arautuko duen dekretu honek bidea libre uzten die beren lana euskaraz egiteko gai ez diren milaka langileri

kamusten joan zen eta frustrazioa nagusitu zen. Horri guztiari gehitu behar zaio lanpostu berriak ari zirela sortzen,

horietako asko eta asko derrigortasunik gabeak, lehen aipatutako indizetik kanpo geratzen zirelako eta, ondorioz, beren lana euskaraz egiteko gaitasunik ez zeukaten langileak ugaritzen joan ziren berriro. Lehendik zeudenak euskaltegira bidali eta berriz ere erdaldunak sartu. Hori planifikazioa! Egoera absurdoa zen.

30 urte pasa dira. Borondate politikoa izan duten administrazioek nola edo hala aurrera egin dute, ezintasun handiz eta borroka eginez zenbaitean, eta beste askok patxada ederrean segitu dute derrigortasuna indizeetara mugatuz eta, ondorioz, gaztelaniaz lan eginez. Herri administrazioaz egin dudana argazki hau baino anitzez itsusiagoa da beste administrazio batzuen erretratua, Ertzaintza edo Osakidetza, kasu.

Dekretu berria onartu dute. Sei urte eman dituzte ontzen, eztabaidatzen eta, nagusiki, negoziatzen. Kezka eragiten duten elementu asko daude, euskararen normalizazioaz arduratzen diren eragileek egindako balorazioetan adierazi duten moduan. Derrigortasunak segitzen du indizeen menpe, eta “behar” baino “ahal” hitza nagusitzen da bai testuan eta bai espirituan.

Urte mordoia baterako funtzionamendua arautuko duen dekretu honek ez dio bidea ixten lana euskaraz egiteko gai ez den pertsonari. Beste modu batera esanda, bidea libre uzten die beren lana euskaraz egiteko gai ez diren milaka langileri. Langileak gai izatea ez da nahikoa lana euskaraz egiteko, baina gaitasun nahikorik gabe ezinezkoa da. Itoginik handienak konpondu gabe segituko du. ●

BABESLEA:



“ ”

Pena ematen dit jendea futbolarekin horren itsututa egoteak

Oier Sanjurjo, futbolari ohia

Etxeko egongelan, oharkabeen, bere ibilbide profesionalaren zenbait aztarna utzi ditu Oier Sanjurjok (Lizarra, 1986). Lurrean jostailuzko animaliak eta zuhaitzak daude barreiatuta, oihan bat irudikatuz. Futbol profesionalak ere badu oihanetik; harrapariak eta harrapakinak dituen ekosistema bat da. Eta bertan

hamabost urte luze eman ditu lizarratarak, gehienak Osasunaren elastikoa jantzita. Iaz erretiratu zen, eta familia-bizitzaz gozatzen ari da orain. Pieza guztiak dagokien tokian jarri nahi ditu, etorkizunean zer egin jakite aldera. Kasualitatea izango da, baina bukatu gabeko puzzle bat dauka mahai gainean.

 EÑAUT AGIRREBENGOA

Futbolari asko hutsik sentitzen dira botak zintzilikatu ostean. Zuri ere hala gertatu zaizu?

Daukadan sentsazioa da onenak emanda bukatu nuela. Ez dut halako zirrarak sentitzen nire taldekide ohiak zelaian ikusten ditudanean. Naturaltasunez egokitu naiz egoera berrira. Eroso nago. Ez da erraza trantsizio horretan zure tokia aurkitzea, eta uste dut egokitze prozesua oraindik futbolari nintzela abiatu nuela. Abisatuta nengoen, eta prest iritsi naiz aro berri honetara.

Umetatik baloiaren atzetik aritzen zarete, baina, halako batean, akabo futbola. Eta amildegi hori bakarrik zeharkatu behar duzue.

Hor gabezia nabarmena dagoela iruditzen zait. Badira dinamika batzuk futbola utzi behar dutenei laguntzeko. Baina orientazio hori oraindik ez dugu oso eskura. Klubetan ez dago horretan lagun zaitzakeen pertsona bat, eta egon beharko luke. Zorionez, geroz eta futbolari gehiagok bukatzen dituzte ikasketak, bizitza luzea dela jakinik. Futbolari askok ez dugu gure bizitza osoa lasai ederrean emateko adina diru. Etorkizuneko bideak gaztetatik jorratu behar dira.

Erretiroa hartu ondotik, zeren falta sumatzen duzu gehien?

Aldagela baten barruan sortzen diren harremanak aipatuko nituzke. Bizipenak partekatzea, eguneroko bizitasuna...

Aldagela nire bigarren familia zen; ia nire familiarekin baino denbora gehiago igarotzen nuen taldekideekin. Harreman oso sendoak sortzen dira talde baten barruan. Orain hozten ari dira, nahiz eta mantentzen saiatu.

Bestelakoan, nolakoa da 25 futbolari osatutako aldagela bat?

Jokalari bakoitzak ezaugarri jakin batzuk ditu, fisikoki, teknikoki zein psikologikoki. Hiru alor horiek kudeatzea zaila suerta daiteke. Niri, kapitain bezala, askoz errazagoa egin zait Bigarren Mailako aldagela bat kudeatzea. Lehen Mailan, berriz, ego eta prepotentzia gehiago dago. Onenen artean jokatzeko, kritikak eta zuzenketak ez dira guztiz ongi hartzen.



Entrenatzaileek baino indar handiagoa dute jokalariek? Nolakoak dira talde barruko botere harremanak?

Entrenatzaileak koherentea izan behar du bere ikuspuntuarekin, eta modu egoki batean transmititu behar dio taldeari. Ez bada koherentea, futbolariok berehala gogor egiten diogu. "Orain hau esaten ari zara, baina lehen beste hori esan zenuen". Jokalariek ez dute halako konplotik egiten entrenatzaile baten aurka, baina ahul dagoela edo kontraesanak dituela ikusten badute, entrenatzailearen mezuan sinesteari uzten diote. Horrek, ezinbestean, eragina dauka zelaian. Duzun onena ematen saiatzen zara, baina barruan halako gatazka bat daukazu. Ez dira lehiatzeko baldintzarik onenak.

“ ”

Duela hamar urte, fruta erosteko dirurik ere ez zegoen Osasunan, eta benetan diot. Sinestezina da egoerari buelta eman izana

Nondik datorkizu futbolarekiko maitasuna?

"Maitasuna" baino gehiago, "zaletasuna" esango nuke. Umetan, baloiaren atzetik ematen nuen eguna: etxeko pasabidean, ikastolan... Niretzako, munduan dagoen jostailurik politena eta entretenigarriena da baloia. Horren sinplea den gauza batekin orduak eman ditzakezu. Horrek egiten du handi futbola, eta horregatik sortzen du hainbesteko zaletasuna. Ni beti oso ondo moldatu naiz. Berezko abilezia nuen baloiarekin, eta onenetako bat nintzen klasean.

Gerora, hamabost urte egin dituzu profesional gisa, eta 400 partida jokatu. Zer diotsute zifra horiek? Amets guztiak bete dituzu?

Gaztea nintzela, profesional bihurtzea ez zen amets bat niretzat. Urruti ikusten nuen, eta are gehiago, arbuio apur bat eragiten zidan, exijentzia handiko mundu bat iruditzen zitzaidalako. Bizitzak, azkenean, bide horretatik eraman

nau, baina sekula ez dut espektatibarik eduki. Oraindik gazteegia nintzen profesional bihurtu nintzenean, eta ez nuen aparteko gogoetarik egiten. Alabaina, oso gutxi jokatu nuen hasieran, eta krisialdia izan nuen. Ez nuen argi futboleant jarraitu ala ez. Burutik pasa zitzaidan futbola utzi eta irakasle bezala lan egiten hastea. Momentu latzak izan ziren.

Eta nola askatu zenuen korapiloa?

Dena mahai gainean jarri, eta futbolaren alde egin nuen apustu, erabakimenez. Vigora joateko aukera iritsi zitzaidan. Han argitu nuen nire etorkizuna. Futbolari bihurtuta itzuli nintzen Celtatik, eta konfiantzaz gainezka. Geroztik izan ditut momentu gorabeheratsu batzuk, baina indartsu sentitu naiz urte hauetan guztietan. Gogoz egin dut lan Osasunagarrantzitsua izateko, eta kapitain izateko ohorea eduki dut.

Zerk gogobete zaitu gehien urte hauetan?

Osasunaren egoerari buelta eman izanak, eta mendeurrena Lehen Mailan eta jokalaria bezala bizi izanak. Oso egoera latza bizi izan genuen duela hamar urte, eta benetan harro sentitzen naiz orain kluba nola dagoen ikusita. Ez diot soilik jokalarien meritua izan zenik; kluba osatzen dugun guztiok hartu genuen parte eraldaketan, zaleak barne. Balentria latza izan zen. Sinestezina da, Osasuna hiltorian baitzegoen. Fruta erosteko dirurik ere ez zegoen, benetan. Galdezka joan nintzen hemen inguruko fruta-denda batera, ea fruta emango zigun taldea babestearren truke.

Bada ezer partida bat jokatu edo gol bat sartzeak sortzen duen zirraren parekorik?

Partida egunaz, berez, ez duzu gozatzen. Urduritasunak eta tentsioak gainzama eragiten dizute. Aldiz, ederra da garaien baten ostean etortzen dena. Eta golekin eragiten dutena ere oso berezia da. Alde batetik, gol bat sartzean baloia sarearekin ateratzen duen zaratotsa aipatuko nuke. Oso berezia da. Eta noski, zer esan momentu horretan sentitzen den zirrarez... Beste ezerk ez nau horrela sentiarazi. Hiru segundoko eztanda bat da. Sekulako poza hartzen duzu, eta aldi berean, emozio oso bortitzak eragiten dituzu zaleengan. Ez dakit beste inongo den halako sentipenak sorrarazteko. Hainbeste jende erakartzen duen kirol batean, kritikak ere eguneroko oia dira.



“ ”

***Futbolari gisa,
hitzak asko neurtu
behar izan ditut nire
joera politiko eta
sozialak erakusteko
orduan***

Nik taldearen unerik kritikoenetan jaso ditut kritikak. Normala da, baina ez da kudeatzen erraza. Hori gertatzen denean, erabat txikitzen zara zelaian. Baina horri buelta emateak indartsuago egiten zaitu, eta beste kontzientzia maila batera iristen zara. Geroz eta klub gehiagok dute kirol psikologo bat. Beharrezkoa da, baina zalantza batzuk ere badituz. Izan ere, ez dakit futbolaria hainbeste babestu behar den, edo bere kabuz ere egoera batzuk bizi behar dituen begiak ireki ahal izateko. Noski, psikologo batego tresnak emango dizkizu, eta hori oso ongi dagu.

Gorputzari gehiegizko egurra ematen zaio futbol profesionalean?

Bai, gorputzaren deidarreri ez zaie jaramon egiten. Beti prest egon behar duzu. Zu ez baldin bazaude, beste batek aurrea hartuko dizu. Gorputzak atsedena behar du batzuetan, baina zuk estutzen jarraitzen duzu. Geroz eta partida gehiago jokatzen dira gaur egun, eta kezkatu egiten nau futbolarien osasunak. Gorputza horren mugara eramanda, ez dakit nola bukatuko dugun.

Zer iritzi duzu futbolaria gaur egun ematen zaion garrantziaz?

Ni futbolaria izan naiz, baina ez dut ulertzen nola dagoen jendea horren itsututa futbolarekin. Fanatismo puntu hori dutenez ari naiz. Tristeza iruditzen zait bestelako mintzagairik ez edukitzea, eta soilik igandeko partidant pentsatzea. Pena ematen dit hainbeste jende soilik futbola kontsumitzea. Balio oso politik lantzeko tresna da, ados, baina herriaren opioa ere bada. Oso kritikiko nago horrekin. Jendea entretenituta mantentzen dute eta, bitartean, arretarik ez diegu jartzen askoz ere garrantzitsuagoak diren gauzei.

Ikuskera bera zenuen futbolearen buru-belarri zenbiltzanean ere?

Bai, lehen ere sentitzen nuen amorru hori. Gainera, barrutik ezagututa, mundu gezurri bat dela iruditzen zait. Sekulako lehiakortasuna dago, eta jendeak erabili egiten zaitu. Halako egoeretan ez naiz inoiz eroso sentitu.

Hortaz, kontraesan handiak sentituko zenituen zure baitan.

Erabat. Eta kontraesan horiek gainezka egiten zidatenean, galdu egiten nuen futbolari izateko grina. Normalean, alde batera utzi izan dut barne gatazka hori, banekielako futbolearen soilik urte batzuk egingo nituela. Kirol bezala asko gus-tatzen zait, eta etekin ekonomikoa oso handia da.

Adierazpen askatasunik izan duzu futbolari gisa, edo hitzak neurtu behar izan dituzu?

Hori izan da nire baitan izan dudana gatazkarik handienetakoa. Hitzak asko neurtu behar izan ditut, batez ere nire joera politiko eta sozialak erakusteko orduan. Banekien ez nintzela futbolari soila, klub baten ordezkaria ere banintzela; non, eta Nafarroa bezalako lurralde konplexu zein zoragarri batean. Mingainari askotan egin behar izan diot kosk.

Mingainean euskara izan duzu sarri, eta tokia egin diozu Osasunari.

Nire apustu pertsonala euskararen aldeko inplikazioa izan da. Euskara babesterakoan ez nuen kontuz ibiltzeko beharrik sentitzen. Uste dut lan polita izan dudala hizkuntzaren normalizazioa sustatzen, entrenatzailearekin [Jagoba Arrasate] batera. Kezka sortzen dit euskararen erabilerak, eta lan asko dago egiteko. Zentzu horretan, euskal erreferenteak beharrezkoak dira.

“ ”

Espainiako selekzioan jokatzek ez du zure euskal nortasuna kolokan jartzen. Deitu izan balidate, uste dut joango nintzela

Euskal selekzioaren aritzeak zenbateko garrantzia izan du zuretzat?

Zintzoa izanik, hor ere kontraesan bat daukat. Alde batetik, harro nago Nafarroa ordeztu dudalako Euskal selekzioan, edo hobe esanda, Euskal Herriko selekzioan. Nafarroa da guztien ama, eta Osasunako jokalaria bezala ordezkatzeko ohorea izan dut. Bestalde, jakitun nintzen ez nindutela deitzen Euskal Herriko jokalaria onenetako bat izateagatik; Nafarroako ordezkari bezala nindoan, militantziagatik kasik. Lotsa apur bat ematen zidan, ikusten bainuen besteak jokalaria hobeak zirela.

Espainiako selekzioak deitu izan balizu, zer egingo zenukeen?

Ba nik uste dut joango nintzela. Badaukat alderdi militante eta erromantiko bat, gure lurraldearen alde egiteko eskatzen didana. Baina badut beste ahots bat, hori erlatibizatu egin behar dudala esaten didana. Futbola da, eta uste dut Espainiako selekzioan jokatzek ez duela zure euskal nortasuna kolokan jartzen.

Futbol taldeak tokikotasuna galtzen ari diren honetan, sustraiei lotuta jarraitzen du Osasunak. Horren

erakusgarri da harrobiak duen garrantzia.

Apustu hori hor dago, eta zaleen atxikimenduak handia izaten jarraitzen du. Ea etorkizunean ere hala den, baina ez da erraza. Taldeak enpresa erraldoiak dira gaur egun, eta berezko idiosinkrasia galtzeko arriskua dute. Agintariak erronka handia izango dute futbolarik norabide horretan garatzen jarraitzen badu. Hala ere, ikusi da futbolarik ibilbidean ere zikloak daudela. Orain goren puntuan gaude, baina beherakada ere etor daiteke; dela ekonomikoa, dela beste mota batekoa.

Etorkizunera begira, entrenatzaile lanak erakartzen zaitu?

Uste dut gai izango nintzatekeela ondo moldatzeko. Jokalaria bezala, entrenatzailearen luzapena izan naiz zelaian. Ordea, badakit zer dakarren entrenatzaile izateak, eta ez nau guztiz konbentzitzen. Gainera, berriz ere lanez lepo egongo nintzateke asteburuetan, eta familia beste nonbaitera eraman beharko nuke arrastaka. Ez da eroso. Hori bai, futbolari ibilbidea Zipren bukatu nuen, eta oso esperientzia polita izan zen. Rock talde bat ere osatu nuen, The Clozes, taldekide batzuekin batera. Horretaz ere harro nago!

Gorputzak zer eskatzen dizu orain?

Denbora tarte bat ari naiz hartzen, atse-den hartu eta gauzak bere tokian jartzen saiatzeko. Prozesu horretan, gauza oso interesgarri eta motibagarri bat topatu dut: arnasketa. Formakuntza polita ari naiz egiten horren inguruan. Pertsonen ongizatera dago bideratua. Arnasketa oinarriko funtzio bat da, eta berrikasi egin behar dugu. Kirol arloarekin lotura handia dauka, oxigenazio on batek onura handiak dakartzalako. Badago zer landu, eta gogotsu nago. Futbolarik lotu dudana? Ez dakit. Batek daki. ●



LEGAZPIKO
UDALA

www.legazpi.eus

LEGAZPI ERE
EUSKARAREN
ALDE,
HARRO HERRI



Irundik Baionarat
2024ko martxoaren 14tik 24ra

CAROLINA GANDULFO,
DOKTOREA ETA GUARANIERA IKERTZAILEA

“Haurrak ‘isilak’ ziren, gaztelaniaz, ez guaranieraz, baina hizkuntza honek ez zuen balio”



Carolina Gandulfo doktorea. Argentinan jaioa, Ipar-ekialdeko Unibertsitate Nazionaleko Humanitate Fakultateko irakaslea. Iragan udazkenean Garabidek gonbidaturik egonaldia egin zuen gure artean, eta mintzatu zitzaigun Argentinako guaranieraz. Ikastetxe bateko esperientzia kontatu du. Gaztelaniaz alfabetatzen hasi eta guaraniera hitzunak “agertu” zitzaizkien haurren artean.

 MIEL A. ELUSTONDO  ZALDI ERO

Espainolak iritsi ziren garaian 35 hizkuntza indigena ziren Argentinan. Gaur egun, hamabi hitz egiten dira, eta desagertzeko arriskuan dira denak. Haietarik bi, populazio ez-indigenek hitz egiten dituzte: Santiago del Estero-n hitz egiten den kitxuera, eta Corrienteseko eta beste zenbait probintzian erabiltzen den guaraniera. Ezin jakin zenbat hitzun dituzten hizkuntza bi horiek. Zenbait autoreren arabera, Corrienteseko biztanleen %50 guaraniera-hiztuna da, eta herrialde osoan milioi bat hitzun lirasteke denera, ipar-ekialdeko eskualdean, oroz gain.

Garabiden egin zenuen hitzaldian, esan zenuen ezustean guaranierarekin egin zenutela topo.

Eta egia da. Ni, esaterako, 2001eko abenduan heldu nintzen Lomas de Gonzálezeko eskolara. Herri txiki bat duzu Lomas, landa eremuan, Corrienteseko probintzian. Urte horren hasiera orduko, Corrientesen, San Jose Institutuko ikerketa

departamentuan diagnostiko bat egiten hasi ginen, 6 eta 7 urteko ikasleek irakurketan eta idazketan zuten gaitasunez buruzkoa. Lomaseko eskolara joan nintzen lehenengo egunean, bilera egin nuen zuzendariarekin eta maistrekin, 2002an hasiko genuen ikerketaz informatzeko. Haurrei irakurtzen eta idazten irakasteko proiektu-pilotu baten proposamena genuen eskuarte. Azaldu genien, adostu genuen gauza, eta hurrengo ikasturtean itzuli ginen, proiektu-pilotua inplementatzen hasteko.

2002an, lanean hasi zineten eskola horretan.

Bai. Irakasleek esan ziguten lehenengo gauza izan zen ikasleek gutxi hitz egiten zutela, “landa-eremukoak” zirelako-edo. Inork ez zigun esan inguruan guaraniera hitz egiten zela. Hasierako mailako gelak bisitatzen hasi ginenean, iruditu zitzaigun ikasleak guaranieraz aritzen zirela, baina maistrak ikusten ez zituen! Bagenuen diagnostiko bat ere, eta

datuek salatzen ziguten errendimendu alde nabarmena zegoela landa-eremuko eta hiri-eremuko ikasleen artean. Guk landa-eremuan bizitzeak dakarren egoera sozio-ekonomikoari egotzi genion errendimendu alde hori. Laster, gure proiektu-pilotua ezarri arau, estatistikek erakutsi ziguten ikasleen artean sekulako leizea gertatzen ari zela, batzuk neurri onean ikasten ari ziren irakurtzen eta idazten –gure proposamen didaktikoaren arabera, betiere–, eta beste batzuek, aldiz, ez zuten aurrera egiten.

Guaraniera zen tartean?

Artean ez genekien. Esaterako, urte hartan bertan bilera egin genuen garaiko Hezkuntza ministroarekin. Proiektuaren berri eman genion, eta ondoko urtean ere gure proposamenaren arabera lanean segitzeko baimena eskatu genion. Eskolako ikasleek guaranieraz hitz egiten zuten errezelotan ginela esan genion, eta berak, orduan: “... iturri onetik dakit landa-eremu horretan ia ez dela guaraniera erabil-



tzen. Dakidanez, bakan batzuek ikasten dute, baina bigarren hizkuntzatat daukate. Zaharrak baizik ez dira guaranieraz mintzatzen; gazteen artean desagertzeko zorian dago”.

Baina esan duzu, hala ere, zuek, ikertzaileok, errezelotan zinetela, ikasleek guaranieraz baliatzen zirela irakaslea inguruan ez zebilenean...
Errezelotan, bai. Baina eskolan inork ez zuen ikusten guaranieraren erabilera,

“Debeku mota asko daude, ez dago hizkuntza bat erabiltzeagatik inor zigortu edo esplizitoki zentsuratu beharrik”



Hezkuntza ministroak ere guaranierarik ez zela hitz egiten esaten zuen. Ez zen konplot bat, ez zen denak ados jarri zirela –ministra, maistrak, ikertzaileak–, guaranieraren presentzia ukatzeko. Ez zen halakorik. Zen egoera soziolinguistiko bat, hizkuntza gatazka bat, zeina espresatzen baitzen bi hizkuntzetako bat desagerraraziz edo ikusezin bihurtuz. Jakina, badakigu zein den hizkuntza hori. Izan ere, laster ohartu ginenez, ikasle askorentzat gaztelania ez zen beren lehen hizkuntza, are gutxiago hizkuntza bakarra. Beraz, bistakoa zen guaranierak intzidentziaren bat izan behar zuela.

Zertan zen guaranieraren intzidentzia hori?

Ez genekien. Presentzia handia zuen, ez zuen, edonolako. Garai hartan ezin jakin genuen zenbatek zuten guaraniera lehen hizkuntzatat, edo, esaterako, zenbat ziren guaraniera elebakarrak, edo elebidunak. Bazirudien –eta horixe besterik ezin genuen esan orduan, “bazirudien”–, ikasleen ehuneko handi samar batek guaraniera zuela lehen hizkuntza. Haatik, eskolan ez zuten guaranieraz hitz egiten, eta, gehiago, gaztelaniaz alfabetatzen ari ziren, irakurtzen eta idazten ikasten, alegia.

Esan nahi duzu, irakurtzen eta idazten ikasteko proposamen berri bat egiteak ekarri zuela azalera guaraniera?

Bai. “Alfabetatzea” esaten genuen, horrek nahitaez gaztelaniaz beharko balu bezala. Uste hori inplizituki barneratuta bizi ginen, ebidentzia hutsa balitz bezala: gaztelania Argentinako Estatuaren hizkuntza zen, hizkuntza ofiziala. “Estatu bat, hizkuntza bat”. Uste hori indarrean, zein hizkuntzatan ikasiko zuten, bada, umeek irakurtzen eta idazten, gaztelaniaz ezik? Eskola publikoaren zutarrietako bat ukitzen ari ginen, helburu fundazioaletako bat, hau da, gaztelaniaren irakaspena, nazio-estatuaren hizkuntzarena. Guarania azaldu zitzaigunez gero, ordea, aipatu helburu hotsandiko hori zalantzan jartzen hasi ginen. Guarania azaldu zitzaigula esan dut, baina hori, esateko moduko bat da, zeren guaraniera hantxe baitzegoen, edo, hobeto esan, guaraniera-hiztunak, umeak Lomasen eskolatzen zituztenak. Baina gu, handik 50 kilometrotara, Corrientes hiriburuan, ez ginen ohartzen: gure herrialdean gaztelania besterik ez zela hitz egiten uste genuen.

Baina hantxe zegoen guaraniera, ohartu zinetenez. Harrezkero, nola jokatu zenuten eskolan?

Eskola birpentsatu behar genuela erabaki genuen. Alfabetatzea zengure helburua, uste ez genuen egoera batekin egin genuen topo, baina, nola baztertuko genuen, bada, komunitatearen hizkuntzarik? Bi hizkuntza-komunitateen artean gatazkaren bat izango zela intuizten genuen, eta gure erabakia izan zen aurrera egitea, Lomaseko eskolan geratzea eta alfabetatzea lantzea, baina guaranieraren presentzia ere kontuan hartuz. Eskolako irakasle batzuk ere gurekin bat etorri ziren, eta prest izan ziren proiektu eraberritua garatzeko. Proiektuaren bigarren urtean, adibidez, irakasleetako bat ikasleekin guaranieraz hitz egiten hasi zen, eta, hurrena, egoera komunikatibo gehiago ere sortu ziren guaranieraz. Adibidez, eskolako langileekin eta joskintza tailerlean parte hartzen zuten ikasleen amekin guaranieraz hitz eginez.

Guaranieraren erabilera bistaratzen hasi zen, beraz?

Hein batean, bai. Haatik, eskola-ekitaldietan guaraniera hartzea izan zen nobedaderik handiena. Laster ohartu ginen, ordea, nobedade horrek debeku sozial bati kontra egiten ziola, guaraniera eskolan erabiltzeko debekuari, alegia. Era guztietako azalpenak eta justifikazioak ematen zituzten batzuek eta besteek. Esate baterako, zenbait gurasok esaten zuten ikasleek guaranieraz hitz egiteak zaildu egingo zuela alfabetatzea, porrota ekarriko zuela. Haien ustez, porrota ez zen, bakarrik, eskola-porrota izango, porrot soziala baizik: gaztelaniaz hitz egiten eta idazten ez bada, gizartean gora egiteko batere aukerarik ez dagoela sinistuta zeuden batzuk. Badakigu eskolaren helburu handienetako bat izan dela gizartea homogeneizatzea, nazioa eraiki ahal izateko tresna izan dela. "Nazioa" esan dut, baina berdin esan nezakeen "nazionalitatea" edo "nazio-identitatea". Izen bat edo bestea eman, hizkuntza elementu giltzarria izan da beti; da, oraindik.



"Eskola publikoaren zutarrietako bat ukitzen ari ginen, gaztelaniaren irakaspena, nazio-estatuaren hizkuntzarena".

MAITASUNEZ

2003an, urtearen erdi aldera, bigarren mailako maistra bat ikasleei ikasgelan zenbait gauza guaranieraz esaten hasi zen. Ikasleek gaztelaniaz erantzuten zioten, ez guaranieraz. Urte hartan bertan, bigarren erdian, maistra hura lehen mailara aldatu zuten. Ikasleei zenbait gauza guaranieraz esaten segitu zuen, baina, kasu honetan, ikasleak ere guaranieraz hasi zitzaizkion! Horretaz galdu, eta esan zigun ez zuela apartekorik egiten: "Ez dut ezer planifikatzen, hitz egin baizik ez dut egiten, hurrekin komunikatzen naiz, normal, beste gabe. Maila handiagokoek barre egiten zuten guaranieraz hitz egiten nuenean, jolasean ari nintzela pentsatzen zuten". Behatu genuenez, maistra hark guaranieraz hitz egiten zuen ikasleak besarkatzean edo laztantzean, guaranieraz egiten zituen hitz goxoenak, eta lanen bat haste-ko garaian ere, guaranieraz egiten zuen azalpena -batzuetan, baita lan osoa guaranieraz burutu ere-, ikasleak gaztelaniaz zuzentzen zitzaizkion. Orduantxe piztu zen komunikazioa, guaranieraz! Eta lehen haur "isilak" omen zirenak, gero berritsuak zirela esaten hasi ziren, zirtolariak, burutsuak.

Debeku soziala aipatu duzu, guaraniera eskolan ez ezik, inon ere erabiltzeko debekuaz ari zara?

Begira, guaraniera baze-bilela ohartu ginenean, irakasleei galdezka hasi ginen, eta haiek beren errelatoak zituztela jakin genuen. Esan ziguten haiei ere, eskolan, guaranieraz hitz egitea galarazi zietela, eta gurasoek ere ez zietela utzi etxean guaranieraz hitz egiten. Gaurko egunean, guaranieraz hitz egiteko gai ote ziren galdetu genien, eta ulertzen zutela, baina ez zutela hitz egiten erantzun ziguten; haatik, guaranieraz moldatzen zirela ikusi genuen... Eta debekuaren diskurtsoa lantzen hasi ginen.

Zer esan nahi duzu?

Adoretu egin zirela, nolabait, eta irakasleek ez ezik, ikasleen gurasoak eta herritarrak ere eskolan jasotako zigorrak kontatzen hasi zitzaizkigula; guaranieraz hitz egiteagatik, alegia. Debekuaz ari zirenean, iraganean ari ziren beti. Orainaldiko debeku barneratua, aldiz, ez zuten debeku kontsideratzen. Gehienetan, eskolan eta etxean galarazi zieten guaraniera, eta, gehienbat, haurtzarora zen garaia. Zigorrez den bezainbatean, pertsona larriren baten aurrean hitz eginez gero jaso izan zutela esan ziguten. Hortaz, haurrek guaranieraz ezin hitz egin zuten eskolan ez etxean, eta, beraz, eskolatik etxera edo etxetik eskolara bidean hitz egiten zuten, edo soroan, edo langileekin, edo *bolichon* [denda-taberna]. Eta atearan atzean ezkutatu, eta aditzen zuten helduak guaranieraz ari zirela.

2002. urtean lotu zintzaizkioten proiektu-pilotuari. Garaian, zenbatek hitz egiten zuen guaranieraz?

Soziolinguistikatik jardunez gero, ez dugu guaranierari buruzko estudioarik aurkitu. Ez dakigu ezer erabilera esparruei buruz, ez Lomaseko eskolakoaz. Horrek guaranieraren ikusezintasuna besterik ez digu erakusten. Eta ohartu gara mundu akademikoak, unibertsitateak, hizkuntzen ikusezintasun prozesuak indartzen dituela. Hala ere, hizkuntza indigenen gainean egin di-

ren azterketa antropologikoez erakusten duite herriaren hizkuntzak eremu pribatura eta familiara baztertu direla, beti, erabilera arrunta izan duela, baina hortik landa, eremu publiko eta instituzionalean, nazioaren hizkuntza ofizialak baizik ez duela izan presentzia. Antzeko gertatu da guaranieraren kasuan, noski.

Daturik ez, beraz...

Hiru urtez ibili ginen joan eta etorri Corrientesetik Lomas de Gonzálezera eta, denbora joan arau, gero eta guaraniera hitzun gehiago agertu zitzaizkigun. Hori ez zitzaion zor hizkuntzaren transmisioari, edo ez zen gertatu herritarrak buru eta bihotz guaraniera ikasteari lotu zitzaizkiolako. Ez, oroz gain, gure begiratzeko modua aldatu zen. Ez zegoen hizkuntz erroldarik egiteko modurik, eta hitzunek berek ere esaten ziguten ez zekitela guaranieraz hitz egiten, baina guaranieraz mintzatzen aditzen genituen zenbait egoeratan. Hala ere, eta hiru urte igaro eta gero, ez genekien eskolako irakasleak guaraniera hitzunak ziren, ez ziren.

Hiru urte eta gero, ez zenekiten? Harrigarria da...

Beti-betiko erantzun berak jasotzen ge-

“Hitzunek berek ere esaten ziguten ez zekitela guaranieraz hitz egiten, baina guaranieraz mintzatzen aditzen genituen”



nituen: “Ulertzen dut, baina ez dut hitz egiten”, “Gurasoek bai, hitz egiten zuten, baina niri ez zidaten hitz egiten uzten”, “Galarazia nuen, eta barruan daramat galarazpena, barruan trauma, ulertzen dut, baina ez naiz guaraniera segitu bat hitz egiteko gai”. Baina esan dut, ezetz esan arren, handik pixka batera guaranieraz hitz egiten ikusiko zenituen! Hortaz, zer esan nahi du guaranieraz hitz egiteak? Zer da guaranieraz mintzatzea irakasleen, ikasleen, gurasoen begietara? Eta guretzat? Eta zer da gaztelaniaz jakitea? Zein hizkuntza gaitasunez ari gara? Uler-tu, hitz egin, irakurri, idatzi... ei dira lau

trebetasun nagusiak, eta hizkuntza batean edo bestean, Lomaseko bizilagunek ez zuten gaitasun bera...

Errolda linguistikorik ezin burutu...

Zerbait asmatu genuen, hala ere. 2004an, 6. mailako hiru ikasle hartu, eta ikerketan lagunduko ote zidaten galdetu nien. Baietz erantzun zidaten, eta lehen errolda linguistikoa egiten hasi ginen. Alegia, ikasle helduenek, txikiak errolda egin zuten, eta, hortik, erabileraz ere jabetu ginen, hitz egiten zutela, alegia. Ordu arte, haurrak “isilak” ohi zirela aditu behar izan genuen behin eta berriz eta askotan; ez zutelako gaztelaniaz hitz egiten, jakina! Bestalde, esaten ziguten inguruan inork ez zuela guaranieraz hitz egiten, baina ikasle haietako asko guaraniera hitzunak ziren, eta gurasoak, eta herritar franko ere bai! Haurrak “isilak” ziren, gaztelaniaz, ez guaranieraz, baina hizkuntza honek ez zuen balio, nonbait. Ideologia linguistikoa jakin batek –gaztelaniarenak–, guaraniera ikusezintasunera kondenatu zuen, ez aditu ahal izatea ekarri zuen. Debeku mota asko daude, ez dago hizkuntza bat erabiltzeagatik inor zigortu edo esplizitoki zentsuratu beharrik. ●



BERDEAGO AZOKA
ENERGY & NATURE 2024

Martxoak **22 / 23 / 24**
Landako Gunea, Durango

Berdeago
energy

eraginkortasun energetikoa
ingurumen-berrikuntza
mugikortasun jasangarria
energia berriztagarriak
bioeraikuntza

Berdeago
nature

kontsumo arduratsua
moda iraunkorra
elikadura ekologikoa eta Km0-koa
kosmetika naturalak
finantza etikoak

Babesleak



www.berdeagoazoka.org

ARRAZIONALITASUNA VS EMOZIONALITASUNA



JOSEBE BLANCO

Gezurra ematen badu ere, oraindik ere entzun egin behar dugu –gehienbat emakumeok– emozioak arrazionaltasunaren gainetik jartzen ditugula, eta horrela ezin dela taxuzko erabakirik hartu. Azken asteotan bi gizonezkeri entzun diet argudio bera, energiaz ari zirela.

Argudioak sortutako dardarizoak eraman nau psikologiako apunteei hautsa kentzera, eta emozioen eta sentimenduen arteko ezberdintasunarekin egin dut topo. Lehenengoak bat-batekoak dira, unibertsalak, berezkoak eta inkontzienteak. Emozioek biziraupena ziurtatu digute, arriskuetatik libratu eta hona ekarri gaituzte, belaunaldiz belaunaldi. Sentimenduak, aldiz, denboran mantentzen dira, eta emozioen eta pentsamenduen ondorioak dira; emozioen interpretazioa omen dakarte. Lobulu aurrefrontalean sortzen dira –planifikazioa, hausnarke-ta eta erabakimena sortzen diren leku berean–. Hortaz, hizlariak "emozio" eta "sentimendu" kontzeptuak nahastu egin dituzte.

Ñabardurak ñabardura, deigarria da arrazionaltasuna vs emozionaltasuna eskemetara itzultzea, biek elkarren arteko inongo konexiorik izango ez balute bezala. Edozein kasutan, bitxia da –zer edo zer esatearren– nolatan, oraindik ere, iritzi bati kontra egiteko erabiltzen den arlo emozionalaren gutxiespena. Oso bitxia.

Zenbait jardueraren etika falta zuritzeko ere erabili izan da dikotomia hori. Nirera etorrita, zoeteknia-



ri buruzko XIX. mendeko tratatueta definizioak zioen: *etxeko eta basoko animalien hazkuntza, hobekuntza eta ustiapena aztertzen dituen zientzia da, produktibitate maximoa eta errendimendu handia lortzeko helburua duena.*

Jakina, lan egiteko molde horretan sentimenduak ez ziren –dira– existitzen, –ez animaliena, ezta pertsonena ere–; "objektibotasuna" lehenesten zen. Orduko tratatueta joko bagenu, ez genuke aurkituko "jasangarritasun" hitza –oraingoetan bai: jarrai dezagun ustiatzen, baina modu *guayan*–. "Ustiapenaren" izpiritu hark bere horretan jarraitzen du, zertzelada berde batzuk gehituta. Helburuak jarraitzen du produktibitatea eta errendimendua izaten. Animaliak jarraitzen du sentitzen ez duen elementua izaten. Egoera horretan bizitzera kondenatutako animalia-
rekiko enpatia izpi txikiena erakusten duena, milika eta animalista da.

Mende bat eta erdi geroago, beste arlo askotan –gehienetan ez esatearren– aplikatzen zaio filosofia bera lurrraren gainean –edo azpian– dagoen edozein elementuri, baita pertsoneri ere. Definizioa errepikatzen da, eta horrek eraikitzen ditu munduan egoteko modua eta munduari begiratzeko era.

Energiaren gaia ez da salbuespena, eta errealtatea eta bizitza excel tauletatik begiratzen dutenek martxan dagoen kolonialismo energetikoaren alde ilunak azaleratzen ditugunoi arrazionaltasun falta leporatzen digute, emozioek pisu handiegia omen dute gure iritzietan. Aurrekaririk ez balego bezala, beste lurraldeetan gertatutakoak hemen errepikatuko ez balira bezala –baita beste itxura batekin ere–.

Hori horrela, zaila da injustiziaren aurrean sentimenduei iskin egitea; zaila da naturaren –eta beraz, denon bizitzaren– suntsiketaren aurrean ezer ez sentitzea. Ezinezkoa ez hausnartzea, ez antolatzea, ez erabakitzea horren kontra egitea; izan ere, denon bizitzak jokoan daude.

Kasualitatea ote "arrazionaltasun" horren aldarrikatzaileak maiz gizonak izatea? Emozioak eta sentimenduak bereizten ez dituzten horiek ez al dute ezer sentitzen? Benetan uste dute haien altzairuzko pentsamendu pragmatiko eta tekniko sentimenduen bekatutik libre dagoela?

Nola sinetsi planeta honetan bizitza –bere zentzu literalean eta hertsian– ezinezkoa egiten ari den arrazionaltasun berak salbatu behar gaituela? ●

A ZE FAUNA!

BASOA BERRITZEN DUEN LANGILEA



EGOITZ ALKORTA MIRANDA
ARANZADIKO KIDEA



AITOR MONTES ARRONDO / CC

URTXINTXA

Sciurus vulgaris

TALDEA: Ornoduna / Ugaztuna.

NEURRIA: Gorputza 20-30 cm eta isatsa 14-25 cm artean.

NON BIZI DA? Basoetan eta hiriko parkeetan.

ZER JATEN DU? Haziak eta fruituak gehienbat.

BABES MAILA: Ez dago babestuta.

Urtxintxa, burtxintxa, ürtxaintxa, kataburtxintxa, katakutxintxa, katagorria, kattagorria, katamixarra, katamixerra, mixerra... Zenbat izen karraskari arborikola polit honentzat. Izan ere, nork ez du ba eza gutzen katagorria? Bereziki basoetan bizi da, baina gure herri eta hirietako parkeetan ere bada.

Oso erraz identifikatzen den tamaina ertaineko ugaztuna da. Ilaje arre-gorritzat du, azpialde txuriarekin. Neguan, ile gehiagorekin, kolore ilunagoa hartzen du eta udan argitu egiten da. Neguan, belarri puntetan ilea tente-tente edukitzen du, udan galdu egiten duena. Isats luze-luzea, ile harro-harroarekin. Lau hatzamar eskuetan eta aldiz, bost behatz hanketan. Atzeko hankak aurrekoak baino askoz luzeagoak ditu, jauzika aldaxkatik aldaxkarat ibiltzeko.

Iberiar penintsulatik hasi, eta Txina, Korea eta Japongo basoetaraino, banaketa oso zabala du katagorriak. Euskaldunek esan izan dute garai batean katagorri batek Euskal Herria puntatik puntara zeharkatu zezakeela lurrera jai-

tsi ere egin gabe, gure lurra basoz betea zegoelako. Egia ote? Ezin jakin! Garbi dagoena da gaur egungo urtxintxa abenturazaleenak ere ezingo lukeela hori egin, asfatorik zapaldu gabe.

Bakarrik ibili zalea da, jeneralean egunez. Gaua arbolen goikaldean, adaburuetan egiten dituen habia esferikoe-tan pasatzen du. Zuhaitzetako zuloetan ere egiten ditu gordelekuak, landaretzaz goxatuta. Besteek egindako lana baliatuz, okil beltzak egin eta erabiltzen ez dituen zuloak ere gustuko ditu urtxintxa kuriosoak. Beste hegazti batzuek egindako habiak ere erabili ohi ditu.

Jateko garaian, hazi eta fruituak ditu kuttunenak: ezkurak, intxaurrak, hurrak, pinaziak, pagatxak, masustak... baina ondoak, intsektuen larbak eta karakolak ere jaten ditu. Parean tokatuz gero edo besterik ezean, txori txikien habietako arrautzei edo txitoei ere ez die muzin egingo. Dagoenera moldatzen da urtxintxa, ez da batere mokofina.

Zuhaitzetan oso gustura dabilen arren, maiz jaisten da enborrean barre-na buruz behera azkar batean, lurreko

jakiak biltzeko. Hori bai, beti erne ibili beharra dauka, bai lurrean baita zuhaitzetan ere. Izan ere, aztore, hontza, lepahori, azeri, basakatu eta bestelako piztiak beti ibiltzen dira katagorriaren haragi goxoa dastatzeko gogoz.

Udazkenean lana franko egiten du, haziak bildu eta bildu, neguan janari eskasia dagoenerako. Zuhaitzetako zuloetan eta lurpean gordetzen ditu haziak eta pixkanaka-pixkanaka hauek janaz pasatzen du negu gogorra. Ahaztuta edo bizirautea lortu ez duelako, lurpean geratzen dira ezkurak eta bestelako hazi asko eta asko. Esan liteke, nahi gabe, katagorria basozainaren lanak egiten aritzen dela, basoa berritzen. Horrekin, funtzio oso garrantzitsua betetzen du baso ekosisteman.

Isatsa timoi moduan erabiliz orekari eusteko, ez sinisteko moduko akrobaziak egiten ditu katagorriak. Hortxe ibiltzen da abiada bizian, sekulako jauziak eginez arbola batetik bestera pasatzeko. Hain gora, hain trebe, zer nolako inbidia. Nik ere nahi nuke izan urtxintxa bezala! ●

ARRANTZALE BALDARRAREN ARTEAK



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Kanabera sasoia joan da. Baratzean edo soroan barazkien euskarri pardatarako edo makiletarako kanaberak eta banbuak mozteko sasoia urtarrila-otsaila da. Itxiturak edo hesitegiak egiteko edo keretatarako ere ez dira txarrak. Beste zenbat erabilpen ote dituzte? Ni suertekoa naiz, Kandido eta Joseantonio aiarrek izugarrizko banbu tzarra ekarri didate. Itsututa nago: teilatuaren hegalean, teilatuak ematen duen ura biltzeko hodia egurrezkoa nahi dut eta egur egokia topatu artean banbuarekin egingo dut proba. Erdiz erdi luzetara erdibitu, korapiloek barruan duten geruza kendu eta listo. Nolako iraupena izango duen ikuskizun da; busti-lehorrean zer jokabide duen ez dut ezagutzen. Beste saio bat gehiago.

Baten batek arrantzarako erabiliko ote du kanabera? Garai batean bai, ikusten genituen horrelako kanabera dotore askoak, baina gaur egun beste upeleko sagardoa dira! Itsasoan hegaluzetan eta aritzen direnek kanabera erabiltzen dutela dio guri saltzen digun herriko arrantzaleak.

Beste arrantzan, errio-ibai-errekalaku-urtegietakoa, beste arrantza erak ere badira baina zabalduena kanaberarekin egiten dena; kanabera naturala edo artifiziala. Arrantzak artea eskatzen du eta jakintza zabal: arrainen bazkalekuak ezagutzea, sasoi eta ordu egokiak aukeratzea, tramankulu, kanabera, sare, salabardo, amu, kako, beita eta abar. Errio ertzean, gora eta behera dabilen mareak estali eta erakutsi egiten duen lur tarte horretan dagoen basako luharrak du beita onena izatearen sona. Hura biltzea lan nekeza da, basatzen ia belaunetaraino sartu eta ibiltzea zaila da eta aitzurra dantzatu behar.



Intxaur sokolinak (*Juglans regia*) eraginkorrak dira ura pozoitzeko: zakukadatxo bat uretan bertan zanpatu eta zukutu eta arrainak, durduzatuta, gilborrez gora geratzen dira, arrantzale baldarrenak ere eskuz erraz harrapatzeko moduan.

Lantegi horiek ez hartzeko bada beste arterik. Ura edendu edo pozoitzea, adibidez. Horretarako intxaur sokolinak (*Juglans regia*) eraginkorrak dira; zakukadatxo bat uretan bertan zanpatu eta zukutu eta arrainak, durduzatuta, gilborrez gora geratzen dira, arrantzale baldarrenak ere eskuz erraz harrapatzeko moduan.

“Belar beltz”, “belar beltz bikordun” eta “zaldar-belar” esaten zaien *Scrophularia* generoko landare batzuek ere, zenbaitek “igebeltz-belar” ere esaten omen diote, lan bera egiten dute zukutu eta uretara botatzean; agi danean arrainak itsutu egiten ditu.

Langintza horretarako landare eza-gunena apo-belarra, apo-lilia, apo-xaterra edo ostaza esaten zaiona da (*Verbascum thapsus*). Ez dakit euskaraz

arrantza arte hori esateko hitzik baden, baina gaztelaraz landarearen latinezko izena, *verbascum*, hartu eta ekintzari “enverbascar” esaten diote. Eta Pirinio aldean aragoieraz landareari berari “matapezes” (arrainen hiltzaile).

Hona arrainak horrela harrapatzeko erabili izan diren beste landare batzuk: kalamua (*Cannabis sativa*), heriotzorria (*Nerium oleander*), torbiskoa (*Daphne gnidium*), erabelar beltza (*Hyoscyamus niger*), tartikua (*Euphorbia lathyris*), makala (*Populus nigra*), kukupraka (*Digitalis purpurea*), asma-belarra (*Datura stramonium*), astaperrexil handia (*Conium maculatum*), otsababa arra (*Helleborus foetidus*) eta ezker aihena edo lupulua (*Humulus lupulus*). Arrantzale baldarraren arteak. ●

GU ZU BIO

ONTZIRATU GABEKO GARBIKETA PRODUKTU EKOLOGIKOAK, BERMEOKO DENDAN



GARAZI ZABALETA

Ateak ireki berri ditu Bermeon Gu Zu Bio dendak, otsailaren 17an egin baitzuten inaugurazio ekitaldia. Edurne Zulueta Aranguena da proiektuaren bultzatzailea, eta berak azaldu bezala, garbiketako produktuei lotutako kontsumoari buelta bat eman nahi izan dio egitasmoarekin.

“Plastikozko ontziak nagusi dira garbiketa produktuetan, eta kimiko askokoak izaten dira gehienak”, dio. Bada, ontziratatu gabeko produktuak eskaintzen ditu Zuluetak dendan, eta ahal den neurrian, hurbilean ekotzitakoak eta ekologikoak. Etxea garbitzekoak, arroparako, norbere garbiketarako nahiz aire-freskagarriak.

GARBIKARIAK MUNDUA ZIKINTZEN

Bizitza osoa eman du Zuluetak ile-apaintzaile lanean, eta hor piztu zitzaion lehenengoz haien jardunean ohikoak ziren produktuen gaineko kezka: “Beti saiatzen nintzen ahalik eta produktu jasagarrienak erabiltzen, eta banuen interesa mundu horretan”. Gaixotasun bat medio mugikortasun arazoak sur-



tatu zitzaizkionean pentsatu zuen bere bizitzan aldaketa egitea eta kontsumo jasagarria bultzatzeko egitasmoa martxan jartzea: “Garbiketako produktuen kontsumoa asko murriztu genezake, berez ez baita hainbeste produktu behar etxea garbitzeko”.

Bigarrenik, plastikoaren gehiegizko eta alferrikako erabileran jarri du fokua bermeotarrak: “Berrerabiltzeko ontziak ditugu dendan, eta produktu gehienak ontziratatu gabekoak dira”. Hirugarrenik, garbiketa produktuen jatorrian eta ezaugarrietan jarri du arreta proiektua bultzatzerakoan, eta erraza ez bada ere, ahal den neurrian, hurbileko ekoizleen produktuak eskaintzen ditu dendan: “Otxandion kremak ekoizten dituen proiektu batekin harremanetan nago, adibidez”.

Bestalde, dendako produktu guztiak ekologikoak dira. “Kimiko gutxiago garbikariak ditugu, normalean, ohiko produktuek, kaka asko baitaramete”.

APARRIK GABEKO XANPUAK ERE BERDIN-BERDIN GARBITZEN DU

Garbikarien kontsumoan orokorrean kontzientzia gutxi sumatzen du oraindik Zuluetak, osagai naturaletan baino, bestelako ezaugarriei garrantzi handiagoa ematen zaielako:

“Xanpu batek apar gutxi ateratzen badu, edo garbiketa produktu batek lore usain ikaragarria ez badu... kostatu egiten zaigu horiek erabiltzea. Buelta eman beharra diogu horri guztiari”. Dena dela, pixkanaka bada ere, gero eta arreta gehiago jartzen zaiola uste du, horren adierazle da jendearengandik jasotzen ari den erantzun positiboa: “Jende asko ari da dendara etortzen, zer dagoen ikustera, galdetzer... eta salmentak ere ongi doaz”.

Bilbide laburra du proiektuak oraindik, eta pixkanaka joanen da ideia berriak martxan jartzen. Zuluetaaren asmoa da dendako eskaintzaz gain tailer eta ikastaro txikiak antolatzea: “Bikarbonatoarekin eta ozpinarekin ia dena garbitu daiteke, bada, joanen gara ikasten tailer-txo horietan”. ●



“Eurohostoak bermatzen du produktu batek zigilu ekologikoa lortzeko beharrezko kontrol guztiak pasatu dituela

— MIKEL ALCASENA
CPAEN/NNPEKeko auditorea
BURLATA

ETORKIZUNA EKOLOGIKOA DA aurrera goaz!









cpaen.org
navarraecologica.org

ASTEKARIA



Ongi etorri Komunitatera!

Arrazoi hauek eman dituzte egun hauetan ARGIA Jende egin diren kide berrietako batzuek, komunikabide independente hau ekonomikoki babestu eta proiektua bultzatzeko. Ongi etorri denei, komunitatera!

“ ”

“Askotan irakurtzen ditut ARGIAko artikuluak interneten eta oso onak eta ausartak iruditzen zaizkit, euskaraz idatzita egoteaz gain. Horrela jarraitzea gura dut eta hori zoritxarrez zaila da diru barik”.

Elorriotik Itziarrek

“Kazetaritza eta konpromisoa babestu”.

Gasteiztik Oihanak

“Gai oso interesgarriak lantzen dituzuelako eta euskarari ere laguntzeko”.

Urduñatik Ebak

Gorputzen hitzak

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Correos-ek zure herrian ondo xamar funtzionatzeko zortea baduzu, dagoeneko jaso izango duzu etxean aldizkari honen aurreko zenbakia. Bai, badakit absurdotik baduela puska bat esan dudanak; nola izango da posible astekari baten kasuan berriena lehenago ailegatzea aurrekoa baino, edo biak batera? Bada bai, hori da panorama. Baina aurreko zenbakiarena aipatu dizut, irakurle, begiratu bat emateko aukerarik izan baduzu agian oharatu zarelako atal berri bat dugula: “Gorputz hotsak”.

Olaia L. Garaialde da sinatzailea eta bi astean behin osatuko du aldizkari-ko txokoa. Gorputzak erdigunean jarzteza da helburua, gorputzen aniztasuna ikuspegi desberdinetatik kontatzea, bizipenetatik eta euren hotsetik. “Gaia oso zabala da eta atalak bere baitan hartuko ditu oso aspektu desberdinak, beti ere gorputza zentroan jarriz: mintzatuko gara kapazitismoaz –gizartea pertsona desgaitu eta ez desgaituetan banatuta dago, eta desgaituek desgaitu izateagatik jasaten dute zapalkuntza–, egunerokoa baldintzatzen duten traba arkitektonikoez, entzumen urritasunaz,

intersexualitateaz, kirol egokituaz... gorputzetik gauza asko esan litezke”, azaldu digu Arraitzeko (Ultzama, Nafarroa) kazetariak. Bizipenetatik kontatzea da asmoa, ahotsa beraien ematea eta bakoitzak bere esperientziatik eta gorputzetik hitz egitea.

HITZEN NEURRIA


Garaialderi proposamena ARGIAko lantaldetik heldu zitzaion, gaiari espazio handiagoa eman nahi ziotela-eta. Ordurako kolaboratzaile moduan ari zen lanean –2022ko urrian ikusi genuen bere sinadura lehen aldiz “Argi Kontra” atal finitu berrian– eta asko idatzi izan du osasun publikoaz, sexu-genero disidentziez... “Proposamenari denon artean eman diogu forma, pixkanaka joan baikara atala zentratzen”, azaldu digu. “Fintzen joan gara gaia eta eztabaidetako bat izan da, adibidez, hitzena. Zein hitz erabili. Ez baita gauza bera desgaitasuna edo aniztasun funtzionala, esaterako; eta bakoitzak du bere konnotazio politikoa edo konnotazio eza. Azkenean, erabaki dugu ahotsa gorputz horiei eman behar badiegu, hitzen erabilera ere beraien esku geratzen dela.

Beraz, elkarrizketa batean hitz bat eta hurrengoan bestea irakurriko ditugu”, zehaztu digu. Sail berria pixkanaka joango da bere esentzia hartzen eta “gu ere ikasten joango gara, akatsak eginez, zuzenduz, moldatuz eta forma emanez”, azaldu digu.

Okupas motorizados elkarteko kideak izan ditu atal berria estreintzeko lagunak, baina ezagutuko ditugu entzumen urritasuna duen pertsona baten eguneroko trabak eta horrekiko gizartearen jarrerak, hitz egingo du eromenaren autogestioaz, eta askoz gehiago.

Atala hasi besterik ez da egin eta mintza daitezela periferiak, gorputzetatik ere bai. ●

Industria agortu eta gero, zer?



**NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA**

Beriain (Nafarroa), 1974ko otsaila. Potasas de Navarra enpresako langileek greba egin zuten, bestek beste, aurreko urtean Motor Ibérica lantegiko langileek egindako grebak bultzatuta. Ez zen, beraz, Nafarroako industriako lehen greba, ezta Potasasena ere. Baina Potasas Nafarroako enpresarik handiena zen, 2.000tik gora langile zituen, eta lurraldeko mugimendu sindikal indartsuenetakoa. Gainera, duela 50 urte, protesta molde berri baten aitzindari izan ziren: langileak meategietan ixtearena. 1974 hasierako greba hartan 187 langile 70 orduz egon ziren meategi barruan itxita.

Udazken hartan mobilizazio gehiago egin ziren, eta 1975eko hasieran, greba orokorrean parte hartzeaz batera, bigarren itxialdia ere egin zuten urtarrilaren 7an hasita, askoz luzeagoa, 15 egunekoa. Guardia Zibilaren errepresioa oso gogorra izan zen, grebalarien aurkako neurriak bezala: isunak, 30 eguneko kartzela zigorrak, langabezia... Langileetako batzuk soilik 1977ko amnistiaren ondoren itzuli ahal izan ziren lanera. Baina itxialdiak oihartzun handia izan zuen Nafarroatik kanpo ere eta elkartasun uholdea eragin zuen.

INDUSTRIA AGORTUA

Baina Potasas de Navarrak iraungi-tze data zuen. Handik hamar urtera, 1985eko amaieran itxi zuten enpresa, potasa iturria agortuta. Potasas de Subiza ireki zuten orduan, soilik 533 langilerekin, baina urte gutxiaren buruan itxi zuten hura ere. Eta meategiaz gain, oro har, 1950eko hamarkadatik nagusitutako industria eredia ere agortuta zegoen. Hamarkada hasieran Europako hainbat gobernuak –Madrilgoak ere bai– abiarazitako industria birmoldaketak eragin handia izan zuen Hego Euskal Herriko industriagune nagusietan. Desindustrializazioak langile mugimendua goitik behera aldatu zuen.

Geronimo de Uztariz Nafarroako historialarien elkarteak argitaratzen duen



1975eko urtarrilean Potasas de Navarrako 47 langilek meategian 15 eguneko itxialdia egin zuten. Nafarroako enpresarik handienean egindako mobilizazioak oihartzun handia izan zuen.

aldizkariaren azken zenbakiak, hain zuzen, Nafarroako industrializazio prozesua du hizpide, eta prozesu hark langile mugimenduan eragin zuena jasotzen du hainbat adibideren bidez.

1970eko hamarkada hasieran Nafarroako fabriketan izandako mobilizazioak nagusiki soldaten igoera eta lan baldintzen hobekuntza eskatzeko egin zirela uzten du agerian, hau da, eskubi-deetan aurrera egiteko mobilizazioak zirela. Hurrengo hamarkadan, aldiz, ordurarte ziklikoa zen langabezia endemiko bihurtu zenean, atzera ahalik eta gutxien egitea zen mobilizazioen helburua, baldintzei edo lanpostuari berari ahal zen moduan eustea. Langile mugimenduak defentsa egiten hasi behar izan zuen, aurrera egiterik ez zuenez.

Geronimo de Uztariz aldizkarian, Nerea Perez Ibarrola NUPEko historialariak dio desindustrializazioa arlo ekonomikotik aztertu izan dela, baina

eragin sozial nabarmena izan zuela eta, langile klasea ikuspegi horretatik lantzeko ikerketa lerro berriak zabaldu beharra dagoela. Eta, oroimena bultzatzeko, industria ondare fisikoa babes-tearen garrantzia ere du hizpide.

Potasas de Navarraren ekoizpen plantaren azken arrasto fisikoak 2010eko hamarkadan eraitsi zituzten, eta ez zen kasu bakarria izan; Iruñerriko industriarreferentzia izandako Superser fabrika, esaterako, 2019an bota zuten. “Fabrika zaharrak eraisteak desindustrializazioaren historia, ondorio sozialak, langileengan eta beren familia, inguru eta komunitateetan utzitako arrastoa ikusezin bihurtzen ditu” dio Perez Ibarrolak. “Abandonatutako fabrikek gure gizartean bizi izan ziren –eta bizi diren– antagonismo sozialen oroimena gordetzen dute. Agian horregatik dira hain deseroso, duten inpaktu negatiboa ez baita soilik bisuala”. ●

“ ”

Denok ditugu esperientzia estetikoak, baina oso zaila da hori museo batean gertatzea

Jone Erzilla

Denbora darama “ingurua intentsifikatzeko gai diren horiei” begira eta horiekin lan egiten saiatzen, horretarako gertu duenari arreta jarritz. Irudietatik, hitzetatik, argitik eta horiek espazioan agertzeko duten forma eta moduetatik egiten du lan, batez ere.

Orain erakusketa baten aitzakian dabil lanean, Bartzelonan inauguratuko dena maiatzean.

AMETS ARANGUREN ARRIETA LAIDA ZAPRE / ARGIA CC BY SA

Nor da Jone Erzilla?

Oraindik ez dut sentitzen zilegitasunik *artista* naizela esateko. Eta, gainera, ez dut esan nahi hala naizenik, ez dudalako oso ondo ulertzen, *arte* hitza ulertzen ez dudan moduan. Nik badakit nortzuk diren artistak niretzat, badakit hori identifikatzen, baina nik momentuz ez diot nire buruari hori esan nahi. Ez dakit ez ote den presioa ez ipintzearren.

Artista hitzaren barruan uste dut badaudela definizio batzuk agian musikari hitzean ez daudenak, *artista* esatean handitasuna edo egoa barnean egongo balira-edo. Ez dakit, izango da musikariak urrunagotik ikusten ditudalako.

Izan daiteke artistarena lan “bakartiagoa” delako? Bertsolariek, oro har, ez dute arazorik izaten bertsolariek direla esateko.

Uste dut ez nagoela ados gure gizartearen *artista* hitza ulertzen den erarekin. Eta



Durango, 1999. EHU
Arte Ederretan graduatu ondotik, Ikerketa eta Sormena Artean Masterra egin zuen. Ikasketak bukatuta, Aire Galerian praktikak egin zituen eta lanean aritu da bertan bi urtez. Zenbait erakusketa izan ditu; tartean *Ex3*, bere lehen bakarkako erakusketa Durangoko Arte eta Historia museoan, eta *Bi mila botoi* lan kolektiboa Aire Galerian.

ez nagoenez ados, ez dut erabili nahi. Ez dakit zein momentutan eta nork erabakitzen duen zer den *arte*. Nik, orain, *expo* bat eman didatenez, kontsideratzen dut suposatzen dela erakusketa horretan *arte*a egon behar dela, baina ezer gutxi gehiago. Uste dut zerbait *arte*a dela erabaki ahal dudala obra hori gai denean bere gain hartzeko jende askoren sentsibilitatea leku desberdinetatik.

Ulerkeraz ari garela, zein leku du zuretzat ulermenak artean?

Nik gehien flipatzen dudanean gauze-kin, edo hurbildu eta egoten uzten didatenean, beti dago ez ulertze bat. Ez da hainbeste ez dudala ulertzen, baizik eta ez dudala beharrik nire buruan horren inguruko irakurketa bat egiteko. Batzuetan gura barik irakurketa egiten dut, baina ez dudanean egiten disfrutatzen dut, zeren bakarrik horretara nago, egote horretan. Eta nire burua isilik dago. Bi-

laketa batean nago, baina ez hitzetatik.

Niretzat erreferente garrantzitsuak dira Lorea Alfaro eta Jone Otamendi. Bartzelonan egin zuten erakusketa baten harira, Loreak esaten zuen erakusketan ez zegoela ezer ulertzeko, *egon* egon behar zela bakarrik. Literalki horrela dela uste dut.

Esperientzia estetikoak mundu guztiak ditu, baina oso zaila da hori museo baten barruan gertatzea. Askoz errazagoa da hemen gertatzea, Anbotori begira [leihotik kanpora seinalatzen du]. Hor kanpoan eguzki izpiak islatzen badira, flipatzen egon naiteke eta nire ama ere bai. Baina ez da ezer ulertu behar.

Gero, jendeari ezin zaio esan “ez eza-zu ulertu”, zeren horrekin ere frustratu egiten da bat. Uste dut norberak zerikusi asko daukela horretan, pertsona gisa, edo zure gorputzak, leku horietara sartzeko duen moduan.

Beti jaso eta ematen da desberdin norbera dagoen lekuaren eta moduaren arabera. Unibertsitate garaia burbuila sentsazioko urteak

izaten dira, zure arlo berean dabilen jendez inguratuta bizi ohi baikara hein batean. Garai hori atzean utzita, burbuilatik oso kanpo ikusten duzu orain zure burua?

Jarraitzen dut burbuila baten parte izaten, baina ez hainbeste. Unibertsitate garaia 24/7 horretan pentsatzen egotea da, eta horrekin zerikusia duen edozere berbetan egotea. Handik kanpo gertatzen jarraitu ahal da, baina zailagoa da, zeren denok jausten gara hitzetan eta guk ez dugu hitzekin soilik egiten lan.

Arte Ederretatik irteten zaren momentuan ez dakizu non dagoen lurra, ezta non zapaldu behar duzun ere. Burbuila horretan, garrantzia ematen diozu izkina bati, esaterako, eta zure inguruko jende guztia ere ari da inportantzia bera ematen. Gero, handik irteten zara eta galdegiten diozu zeure buruari ea zer zentzu zuen horrek.

Uste dut oso zaila dela egiten zabiltzanak eta horrek munduan duen lekuak zentzua izatea maila berean.

Bartzelonan erakusketa aurkeztuko duzu aurten. Horretarako beka bat eman zizuten iaz. Zergatik zuri?

Ilusio handia egin zidan. Laguntza ekonomiko handia izan zen eta hori ez da askotan pasatzen. “Irabazi duzu”, esan zidaten. “Irabazi”. Eta grazia egin zidan. “Hautatua izan zara” esan ordez, ezta?

Esan zidaten gustatu zitzaizela zer baino gehiago, planteamentua nondik esaten eta idazten nuen. Erakusketa baten proposamena aurkeztu behar nuen. Aurkeztu nuen zein materialekin nengoan lanean momentu horretan eta zer egingo nukeen, baina banekien ez nuela hori egingo, urtebeteko prozesuaren ostean ezin zelako gauza bera izan. Eta hori ere argi utzi nuen.

Asko egiten dut lan nagoen espazioarekin. Kasu honetan interesatzen zaidana erakusketaren aretoa da, gela bera. Eta hortik abiatu nahi izan dut lana, espazioak erabat baldintzatuta, zentzua izan dezan hor.

Musikari familia batetik zatoz eta zu ere musikaria zara. Beste arte



diziplina bat barrutik ezagutzeak uste duzu baduela nolabaiteko isla zure obran?

Edozer gauza garatzen baduzu txikitatik, edo zerbaitekiko sentsibilitate bat duen norbait baldin baduzu inguruan, normala da zuk ere garrantzia ematea horri. Nire kasuan aita musikaria delako da.

Dena den, igual gehiago eragin dit nire amamak. Gerora konturatu naiz, baina amamak gauza asko izan ditu beti etxean, beste edonorentzat zentzurik ez luketenak, batere funtzionalak ez direnak, gordetzen joan den gauzatxoak, apaingarri txikiak... Edonork duen zer-bait da, edo ez. Eta eskerrak denok ez gauden horrelako gauza tontoekin erotuta, zeren bestela ez litzateke ezer sosenituko.

Master Amaierako Lanean [MAL] diozu dena dagoela esanda, baina pertinetza eta inportantea iruditzen zaizula gauza batzuk errepikatzea. Plagioaz zer pentsatzen duzu?

“Zerbait originala” egitea bilatzen ari den jende asko dago, eta egia esan... Ez nuke horretan pentsatzen egon nahi. Ez baituzu “zerbait originala” egingo. Edo bai, baina ez du horregatik gehiago balio. Hemen eta orain zerbait pasatzen ari bada, ez da kopia bat nik hori egitea, ni ere hemen eta orain nago-eta.

Gertatu ohi zait pertsona bat irakurtzen aritu eta denbora batez bere idazteko modua pegatzea. Oso polita iruditzen zait norbaiten idazteko forma nigan geratu ahal izatea, eta pentsatzen dut: “Ze maja, oparitu dit bere idazteko modua”. Hor inportantea dena da kontziente izatea nortzuk diren pertsona horiek eta ea artistikoki bat egiten duzun egiten dutenarekin. Nire erreferenteak dira hemen [MALa seinalatzen du] dauden denak. Eta nik eta nire lanak haien antza pixka bat badugu; beraz, eskerrik asko.

Etimologikoki, *erreferente* hitzak “berriro darimana” esan nahi du. Jakin nuenean oso polita iruditu

zitzaidan, eta uste dut laguntzen duela hitza bera desidealizatzen. Batzuetan, zerbait egin ondoren begiratzen dugu zein pertsonak egin dituzten aurrez horrelako gauzak, eta horiek jartzen ditugu erreferente moduan, ez direnean bate-re horrela izan. Eta uste dut erreferenteak ez duela zertan kanala konpartitu zurekin. Esaterako, nire erreferenteen artean idazle gehiago daude artista plastikoak baino. Edota Bad Gyal edo Gossip Girl ere izan daitezke; badago hor interesatzen zaidan zerbait, nahiz eta ez jakin ondo zer.

Gauzak gustuko ditut, gutxi liluratzen naute eta asko maite ditut dio zure MALEko kapitulu batek.

Gauza asko gustatzen zaizkit, egon naiteke flipatzen tontakeria askorekin, eta eskerrak, horrela bizirauten baitut. Baina liluratu, sorgintzera heltzeko puntu hori ez zait sarri pasatzen. Maite dut gehiago, liluratu baino.

Askotan, gainera, ez dakit bereizten zerbaitek ni liluratu nauen edo lantzen ari naizen horrek duen liluratu nauen horren beharra. Arriskutsua iruditzen

zait, eta beldurtzen nau horri eustek. Zalantzak sortzen zaizkit, ez ote ditudan gauza batzuk permititu dezakedana baino fuertean desiratzen...

Hala ere, berea den leku batetik ari bada norbait zerbait lantzen, niretzat hori da artea.

Lurpekariak-en Itsasorik Iturrira diskoa dakarkit horrek burura. Itsaso zabaletik edanda ere, bakoitzak bere iturritik eskaintzea besterik ez duela nolabait...

Nik aurrekoan esaten nion Jone Otamendi: munduan pasatzen ari diren gauzeekin egoista sentitzen naiz, nire etxean egonda, gauza tontoak egiten eta horiekin flipatzen. Denbora bat dedikatzen horri, inor laguntzeko balio ez duena. Baina beno, horiek karrera absurdoak ikasi ditugunon pentsamenduak dira; egunero planteatzen dugu zer ari garen egiten bizitzarekin. Otamendik esan zidan pozten zela hori entzun izanaz, eta igual hain zurea den zerbait lantzeko ariketa egoista egin behar duzula, gero, kanporatzean, besteei zerbait aportatu ahal izateko.

Batzuetan zu eta zure ingurukoak zarete zure obraren eduki. Zein leku dute gorputz horiek zure lanean?

Askotan erabili dut nire gorputza, baina ez hurbilen dudana delako. Beno, nire gorputza baino gehiago, nire gorputzaren irudia erabili dut; oso diferentea da. Ez naiz dantzari bat. Nire gorputza erabili dut badudalako halako intuizio bat, kameraren aurrean nola agertu nahi dudana jakin badakidalako, landuta daukadalako.

Sare sozialek zein leku daukate momentu honetan zure jardunean?

24 urteko neska naiz, eta erabiltzen ditut gehiengoak erabiltzen dituen lekutik, “neure burua erakusteko”. Dena den, asko erabiltzen ditut tresna gisa. Asko permititzen didate espezializazio horretan jolastea, formatu konkretuetara moldatzea: publikazio bakoitzak gehienez ere hamar argazki izan ditzake, formatua de-



netan berdina izan behar da, testuarekin ala gabe... Ez da igartzen, baina badakit Instagrama jolasteko darabilten pertsona batzuk badirela, eta besteen lanekin harremantzeko bide ere ematen duela. Hori pasada bat iruditzen zait. Bada jende bat behartzen nauena gelditu eta haien perfila begiratzera, eta oso zaila iruditzen zait denboraren zentzurik ez duen plataforma batean denborari leku hori eskaintzea.

Era berean, nire perfila ikusten denbora pila pasatzen dut. Gustatzen zait ikustea erabaki batzuk nola errepikatzen diren; esaterako, ohartzea duela bi urte paper bat tolestatzeko hartu nuen modua gaurko berbera dela, ustez nahita egin barik.

Aparte, oso arriskutsua ere iruditzen zait Instagrama. Denbora guztian kontziente izan behar duzu formatu baten barruan ari zarela jolasten. Egun txar bat badut egon naiteke gauzak ikusten denbora luzez, eta min eman ahal dit, konparaketa super zikinak egon daitezkeelako eta desitxuratu ahal direlako gauza asko. Kontuan hartu behar da gauza batzuen irudiak ikusten ari zarela, eta ez direla sikiera gauza horiek.

Ezin artista bat elkarrizketatu prekaritate hitza aipatu gabe.

“ ”

Hemen eta orain zerbait pasatzen ari bada, ez da kopia bat nik hori egitea, ni ere hemen eta orain nago-eta

Bai... Betikoa. Horrekin lotuta, adibidez, nik inguruan dudanarekin egiten dut lan, erabil ditzakedan materialekin. Ez zait okurrizten, adibidez, metalean ezer egitea, ez dudalako izan horretarako aukerarik. Ez dut inoiz izan dirurik hori egiteko. Eta orain, pasatzen zaidana da ez dakidala lokatzetatik urruntzen, baina oso inportantea iruditzen zait horretan ez erortzea. “Orain dirua dudalako egingo dut ez dakit zer” pentsamenduari ez diot zentzurik topatzen, edo ez behintzat handinahikeriatik denean.

Behin aipatu zenidan Ursula K. Le Guin-en azalpen batekin asko konektatu zenuela: Lokatza vs granitoa.

Uste dut arte prozesuek denboran beste erritmo eta modu batzuk dituztela. Arte prozesu batean zaudenean denbora guztian horretan zaude sartuta, nahiz eta modu pasibo batean izan askotan. Denbora guztian zaude gauza batzuekiko atentzio handiagoa jartzen.

Asko saiatu nintzen artea egiteko edo pentsatzeko modu horri hitzak ipintzen, eta momentu horretan irakurri nuen Ursula K. Le Guinen *Contar es escuchar* (Kontatzea entzutea da) liburuko *Ser tomada por granito* (Granito gisa hautemana izan) kapitulua. Esaten zituen gauza askok lan egiteko modu batzuk gogorarazten zizkidaten. Kontatzen du zelan lokatza den material bat zapaltzen uzten dena, markak geratzen zaizkiona eta markak uzten dituen, besteen pisua jasotzen duena eta eraldatzen ari dena etengabe, ingurua eraldatzen duen bitartean. Granitoa, aldiz, aldaezina den zerbait da kasik, ez bada lehergailuekin. Eskalatzen baduzu ez duzu markarik uzten eta oso zapata egokiekin egin behar duzu...

Lokatzak, dena den, behar du definizio puntu bat, granito puntu bat. Kontua da batzuetan saiitzen garela definizio puntu hori indartzen, eta gauza batzuk granito bihurtzen, lokatz izatetik pasa gabe. ●

Zientzia.eus

Behar dituzun erantzunak

Zientiari buruzko albisteak, audioak, bideoak, agenda, argazkiak.

26.000 edukitik gora.
Entzun, irakurri, ikusi... eta ikasi!

elhuyar
ezagutuz aldatzea



Gurutzegrama

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15
1						█									
2					█										
3							█								
4		█						█							
5	█														
6					█						█				
7								█							
8								█							

EZKER-ESKUIN:

- 1. Sama, iduna. Begira. **2.** ... gainetik, ororen gainean. Ahul, indargabe. **3.** Denda batean sarri erosten duena. Zakurra. **4.** Gaia, materia. Telebista. **5.** Aitziber Garmendia eta Sara Cozarren zuzendaritzapean, Xabin Fernandezek eta Intza Alkainek antzetzutako lana (argazkian).
- 6.** Zuntz. Kanoi luzeko su-arma. Arazo, gatazka. **7.** Erretxin. "Behorak ume bat urtean, sarriago ...".
- 8.** Sei zati berdinetako bat. Bikaintasunez.

GOITIK BEHERA:

- 1. Iloba (Bizkaian). Hasi aditzaren infinitiboa. **2.** Berebat. Kaltzio oxido, kareharria errez lortzen dena. **3.** Poza ematen duen gauza. **4.** Ozeaniako herritar. **5.** Requiescat In Pacem. Xenonaren ikurra. **6.** Janari bikainen zalea dena, mokozuri. **7.** Herri hizkeran, bada. Gipuzkoako udallerria.
- 8.** Xakeko puntuak. Artsenikoaren ikurra. **9.** Lotura hertsia batez, estu. **10.** Bi zotzez jotzen diren danbor zapalak. **11.** Seigarren musika nota. **12.** ... egin, eskaini eta ez eman. **13.** Zeukan.
- 14.** Gabeziak. **15.** Haur txiki.

Sudokua

																ERRAZA
		1	2	5	8			6							3	
				9						1						
6								2								
5	8				7	9	1	2	4							
7		9	6	4	1			5	8							
	4	3			5	9	6	7								
4	6			1	3	7		9								
	3				6			4	1							
2	9				8			3								

																ZAILA
9	3	8														
		5			1										4	
					6	5			9	7						
	7	3													6	
	4			6												
				6		4	3									
								4	3							
		2	5					7							8	
	1		8	7											2	

Esaera zaharra

KOKA EZAZU PUZZLEAREN PIEZA BAKOITZA BERE TOKIAN ETA ESAERA ZAHAR BAT AGERTUKO ZAIZU.

								█		
						█				
	█								█	
					█					.

E	R	S	█	T	A	
N		A	█	T		
P		S	A.	█	M	E

S	A	A	B	A	T	
H		R		A	P	
E	█	A,	U	B	O	
			A			
			U	T	T	S
█						

Anagramak

HITZ BAKOITZAK AURREKOAK DITUEN HIZKI BERAK DITU, BAT IZAN EZIK, BAINA BESTELAKO HURRENKERAN.

- | | |
|-------------------------|--------------|
| Atzen | AZKEN |
| Sendabelar izena | |
| Txanponak | |
| Lakioa, segada | |
| Saltsa lodi eta garratz | |
| Animaliak esestea | |
| Zinema | |
| Zatia, atala | |
| Entzutea, ospea | |
| Su-etena | |
| Mingots, min | |
| Ale ontzia | |
| Ume txikia | NINIA |

EBAZPENAK

HUTSA, POBREA AMETS
 HUTSA.
 ABERTASA TRANPA
ATSOITZAZA

3	1	4	8	7	9	6	5	2
6	9	2	5	3	4	7	1	8
5	8	7	2	1	6	4	3	9
2	5	6	7	4	3	9	8	1
1	4	9	6	5	8	2	7	3
8	7	3	1	9	2	5	4	6
4	2	1	3	6	5	8	9	7
7	6	5	9	8	1	3	2	4
9	3	8	4	2	7	1	6	5

ANAGRAMAK
 AZKEN
 EZKAI
 PEZAK
 ZEOA
 ZIAPE
 EHIZA
 ZINEA
 PIEZA
 IZENEA
 MENIA
 SAMIN
 IMINA
 NINIA

ZAILA

2	9	1	4	5	8	7	3	6
8	3	7	2	9	6	5	4	1
4	6	5	1	3	7	8	9	2
1	4	3	8	2	5	9	6	7
7	2	9	6	4	1	3	5	8
5	8	6	3	7	9	1	2	4
6	5	4	7	1	3	2	4	9
3	7	8	9	6	2	4	1	5
9	1	2	5	8	4	6	7	3

ERRAZA
 LA, 12. TATI, 13. ZUEN, 14. EZAK, 15. NINI.
 BA, IRUN, 8. ELO, AS, 9. HERTSIKI, 10. ATBALAK, 11.
 POZGARRI, 4. OZGANIAR, 5. RIF, XE, 6. MOKOFIN, 7.
GOITIK BEHERA: 1. LOBA, HAS, 2. ERE, KARE, 3.
 BIKAINKI.
 HARI, FUSIL, AUZI, 7. ARAXXIN, KALTAN, 8. SEIREN,
 BEZRO, ORA, 4. GAIKI, TB, 5. KANFORASARTZEN, 6.
ESKER-ESKUN: 1. LEPOA, BEHA, 2. OROZ, MALET, 3.



Zer egiten dugu gure xaharrekin?

GORKA PEÑAGARIKANO

Txotxongiloen teknika erabili dute egoitzan bizi diren zaharrak gorpuzteko. Txotxongiloek ez dute hitzik egiten, egon egoten dira, eta ez dute erabakitze gaitasunik. Objektuak dira, erabiltzaileak; dagoena erabiltzen dute, eta programatzen diren ekintzetan parte hartu, nahitaez. Hitz egiten duen txotxongilo bakarra egoitzatik kanpo dago, baina laster sartuko da hura ere erresidentzian.

Kontatzeko erak lotura ederra eraten du adinekoen egoitzek funtzionatzeko duten sistemarekin. Urtxintxa Urdinak zahar etxean, beste askotan bezala, etekin ekonomikoa helburu duen lanaren antolaketak talka egiten du harremantzen funtsezko gizatasunarekin.

Pandemiak hainbat situazio are era basatiagoan bistaratu zizkion gizarteari, adinekoen egoitzen sistema bera kasu. Maika Etxekoparrek apunteak hartu zituen orduan, eta pandemiaren ostean gorpuztu zuen auzia. Obra honen gidoia idatzi eta antzezle lanak ere egin ditu. Eta sentsazioa ematen du, oholtza gainean

hitzez adierazi ez badute ere, azpimarratu nahi zuen apunteetako bat hauxe dela: identitateak gorpuzte gisa ulertzen direla, eta gorpuzte objektu moduan zaindu. Era zakarrean esanda: etxe honetan arau eta jarraibide jakin batzuk daude, denentzat berdin, eta ez da inor bestea baino gehiago, bat gehiago baizik.

Txotxongilo bakoitza adineko egoitzako erabiltzaileetako bat da, baina bakoitzak du bere pertsonalitatea: isilean jarraibideak onartuko ditu batek, kexa adieraziko du besteak, libratzen ahalginduko da ondokoa... Artalde baten moduan jokatu beharko luketen arren, artalde izan nahi ez duen taldearekin talka egingo du atentzio pertsonalitatearen kontentzetan ez duen sistemak. Eta, jakina, arta indibidualik ez da existitzen, langile nahikoa ez dagoelako.

Lanean hasi berria den gaztea da Ester, gogotsu datorrena lanera eta gauzak eraldatzeko grina duena. Sistemak jango du ordea, alboan izango dituen lankideak iraganean egin bezala. Musikazaletasun

GURE XAHARRAK

NORK: Bonbon Beltz.

NOIZ: otsailaren 18an.

NON: Oiartzungo Landetxe aretoan.

handia duten bi langile daude zentroan, eta horiek beraien *aletxo* horrelaxe jartzen dute, pianoa joz eta kantuz; horixe da, akaso, sistematik aldentzeko gertaerarik behinena. Ikusten da horrelakoak nola eskertzen dituzten zentroko erabiltzaileak.

Argumentua indartzeko badira bi gako. Egoitzaren urteurrena ospatzeko festa antolatzeak halako urduritasun berezi puntua sortzen die, nobedadea izango delako errutinaren erruberran. Aldi berean, langileek kezka bizi dute gobernuaren azken berria: maiztasun handiagoko osasun-inspekzioak. Egoitzaren arduradunak ezinegon handiz bizi du egoera. Langile gutxiegi ditu eta baldintza prekarioetan gainera, baina badirudi ezin duela beste ezer egin.

Auzia horixe da: egoitza *kartzelarioak* sortu dituela sistemak, eta bertako langileen egoera bezain prekarioa dela eskaintzen den arreta. Horretara doa galdera: zer egin *xaharrekin*, haiekin ala haiek gabe? ●



LIBURUA

Beldurra gogoko



DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

BELDURRAK AIREAN AITOR ARANA

IBAIZABAL, 2023

XABIER ETXANIZ ERLE

Zazpi ipuinek osatzen dute Aitor Aranak gazteentzako idatzi duen liburu hau. Ugaria eta ezaguna da Aranaren produkzioa; 125 liburutik gora idatzi ditu, horietako zenbait beldurrezkoak dira, eta azken horietakoak dira *Beldurrak airean* liburu osatzen duten istorioak. Beldurrezko tradizio klasikoaren airea duten banpiro, hilezkortasun istorioak, deabru edo pertsonak akabatzen dituzten izpirituen istorioetatik abiatuta sortu ditu Aitor Aranak liburuak kontuak.

Irakurlea, beraz, estilo ugariko istorioen aurrean aurkituko da. Azkar antzean igarriko du zein nobela edo sinerkeriatik abiatu den Arana. Abiatu... amaierak irakurlea harritu eta harrapatu nahi baitu kasu guztietan. Horixe bai-

ta ipuinon meritua, kontakizun nahiko laburrean irakurlea istorioari lotzea eta irakurtzeari utzi gabe jarraitzea amaieran harritu arte. Edozein kasutan, istorioak askotarikoak izanik ere, guztietan nabaritzen da idazleak duen ofizioa; errazkerietatik ihesi, euskara zaindua eta, aldi berean, irakur arina erabiliz, Aranak lortzen du irakurlea argumetuan, narrazioan eta istorioan harrapatzea, lan horretan zailtasun eta eragozpen handirik aurkitzen ez duelarik.

Beldurrezko istorioak direla esan dugu, eta horretan badute zerikusia argumentuek, gertakariak baita hauen deskribapenek, zenbaitetan zehaztutako nazkagarriekin batera. Banpiro izan nahi eta lurperaturik dagoen narratzailearen kasuan bezala: "Nire erraien sun-

tsipena maila deskribaezinerara heldu da. Parenkimak, hau da, gurintxoaren ehunak txiki-txiki eginda dauzkate: isuri bilakatzen ari zaizkit. Ene gibela dagoeneko gai beltz-berdexka nazkagarria da eta garuna masa gris-berdexka lirdingatsua besterik ez da".

Asko dira literatura unibertsaleko erreferentziak (Oscar Wilde, E. A. Poe, Defore, Dickens, E. King, P. Straub), baita zinemagintza eta gure kulturari buruzkoak ere, eta horrek guztiak are gehiago aberasten du Aitor Aranaren liburu hau; betiko gaztetasunaren sekretua, mamuak, hilezkortasuna, banpiroak, misterioa... maite dituen irakurlea harrapatuko duen liburu. Eta horiek ezagutzen ez dituenarentzat, generoan barneratzekeo guztiz aproposa da. ●



MUSIKA

'In' salto mesedez



XALBA RAMIREZ

noiz ez dut jakin oso ondo zein den “rollo british” musikan, sekula ez naizelako bereziki zalea izan, akaso. Ezezez entzutean, ordea, ez dut dudarik zer esaten duten. Soinuan eta melodian igartzen da, apur bat zikin, apur bat psikodeliko, apur bat retro, apur bat esperimental, apur bat kañero, apur bat jostari...

Hori da Ezezez taldearen *Katuzaldia* diskoa, gauza askoren apurrekin osatutako pieza freskoa. Lehen entzundian dena ematen dizuten kanta batzuk diruditenak, hainbat geruza dituztela erakusten dute, nabari baita ekoizpenari emandako denbora.

Taldean sortzearen aldea da horixe. Unai Madariagak sortu zuen proiektua orain urte batzuk, eta lehen diskoa bakarlarri gisa egin zuen arren, taldekideak batu eta sortu da Ezezez, marxistek

esango luketen ukapenaren ukapenaren ukapenaren osteko sintesia. Eneko Ajangiz gitarra jotzaileak, Mikel Irigoien baxu jotzaileak eta Alvaro Olaetxea bateria jotzaileak osatu dute laukotea.

Talde izaera horrek jarrera punka ekarri die, eta beste gauza nabarmen bat: ingeles hutsez kantatzetik, euskara hutsean kantatzera, *vulkizazio* dei dakiokeen prozesuan. Madariagak azaldu duenez, jolasa ekarri dio euskarak, hitzen xarma bilatuz, eta ekarri dio Marmitako eta txapiro gisako kanta orijinal bat eraikitzea, amonaren omenez.

Surfa ere badu diskoak *Dutxita* kanta dibertigarriarekin. The Uski's-en kanta mitiko hura gogora etortzea ezinezkoa den arren, honek badu memetik haragoko esentziarik. Kanta dibertigarria da, kontrapuntua, orokorrean frenetikoa den diskoan.



KATUZALDIA

EZEZEZ

AUTOEKOIZPENA, 2023

Mutiko I eta *Mutiko II* kantekin ere, diskoa beste leku batera eraman dute, emozioekin jolastea posible dutela erakutsiz. Iñigo Astizek Sandro Penna poeta italiarrari hartutako poema da kanta, bi zatitan eraikia. Naretasuna lehenik, erritmoa ondoren. Madariagaren ahotsa hor, urrunean disko osoan nola.

Denbora gutxian, proposamen interesgarri ugari ematen ari da Bilbo ingurua. Izan daiteke, besteak beste, espazio eta kolektibo undergroundek ereduak jarri dituztelako, mugimenduak mugimendua dakarrelako beti. Eta Ezezez bultzada bat gehiago izango da, ziur: “Gurea psikologo lana ezta / baia eztau ardura / Problema guztiak geure alboan eskapako jatzuz arineketan / Ezezez beti prest / erdu zatez / ta in salto mesedez!”. ●

Orain badakit nongo zuloan

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

Garrantzirik gabeko proiektu txiki bat” zen hasieran, urtebete iraun behar zuen. *Dora-gon Bōru* zuen izena. Alegia, *Dragon Ball*. Alegia, *Dragoi Bola*. Beraz, ez garrantzirik gabeko, ez txiki, ez urtebete: Akira Toriyamak sortutako pertsonaiek 1980ko hamarkadan jaiotako askoren haurtzarora markatu zuten, manga eta animea mundu osoan ezagun bihurtu; eta ia 40 urte geroago ere, historian ale gehien saldu dituen komiki japoniarretako bat da. Joan den astean jakin dugu Toriyama hil dela. Eta klaro, nostalgiametroak eztanda egin dit.

Guk ez baikenuen *Dragon Ball* ikusten, are gutxiago *Bola de Dragón* –oraindik ere izugarri arrotza egiten zait Goku eta konpainia gaztelaniaz entzutea; ez dut uste bakarra naizenik-. ETB1en ikusten genuen noski, ETB1 zerbait zenean, konkretuki gaztelaniazko kompetentziaren aurrean zelaira partidua irabazteko asmoz ateratzen zen kate bat. Hortik, imajinatzen dut, bikoizketaren kalitatea: aktore apartak, denbora luzez Xabier Amurizak euskaratutako gidoiak. Hikatik berorikara zebiltzan pertsonaiak, orain barrabana, gero zantarra, hurrena jarein eta tirok. Estilo bat sortu zen, jolastokian Kinton lainoaren gainean flipatzen zuten haurren euskalkia.

Ume haiek jada heldu direnez gero –kontzientziak ez bada, bai behintzat adinez-, ondo legoke ordea *Dragoi Bola* osatzen zuten materialez pixka bat fuer-teago pentsatzea, sikiera gutako askoren imajinarioan modu inkontzientean sartu ziren zenbait pieza identifikatzeko. Haurtzaroko lilurarik gabe begiratuta, Gokuren abenturak mitologia ugariren sintesi gisa uler baitaitezke. Hasteko, Rafa Egiguren idazleak gogora ekarri izan duen moduan, XVI. mendeko *Mendebaldera bidai*a nobela txina-




tarreko Sun Wukong “Tximino erregea” pertsonaiari hartutako osagaiak dauzka –portzierto, Donostian bereak eta bi egiten jarri zuen pertsonaia hori Egigurenek berak, *Txipiroiak bere beltzean* (Susa, 2019) liburuko ipuin batean-. Istorio hura AEBetako komiki eta film garaikideekin gurutzatzen da *Dragoi Bola*-n, besteak beste *Superman* –landare-eremuan hazitako haur estralurtarren istorioa errepikatzen da; Toriyamak bazuen zerbait DC etxeko pertsonaia nagusiarekin, *Arale*-n ere parodiatu zuen- eta *Star Wars* –planetarteko inperioak masakratutako gerlariren kasta: antzeko istorioa da Saiyena eta Jedien-.

Bestalde, zaila da Hiroshiman eta Nagasakin jaurtitako bomba nuklearrak gogora ez etortzea *Dragoi Bola*-ren une batzuetan: istorioak aurrera egin ahala, borrokaldi bakoitzean leherketa ikaragarriak betetzen zen telebista, suntsipen-gaitasun horrek planteatzen dituen dilemak erakutsiz –Gohanek bere *kame hame* batekin planeta osoa

deuseztatzeko beldurra zeukan, adibidez-. Serieko gaiztoen profil politikoak ere merezi luke analisi bat. Han baziren diktadore faxistak –Freezer-, adimen artifizialarekin funtzionatzen zuten makina hiltzaileak –17 eta 18 cyborgak-, multinazionalen buruen antza zuten zomorroak –gizakiak zurrupatzeari esker indartsuago bihurtzen zen Cell- edo kapitalismo berantiarren espiritua islatzen zutenak –Boo Ahaltsuak zibil errugabeak hiltzen zituen, ados, baina aurretik txokolate-tableta bihurtzen zituen-.

Labur esateko, etorkizuneko elementu asko zeuden ostenduta marrazki bizi-dun haietan. Toriyamaren heriotza momentu ona da berriz horretaz jabetzeko. Beraz, goazen lagunok, amets betean, ea mundu zabaleko txokorik ezkutenetan gordeta dauden zazpi bola magikoak batzea lortzen dugun, dragoiari guraria eskatzeko, bestela ezinezkoa dirudiena gauzatu dadin: ETBk Primeran platafor-man *Dragoi Bola* jartzea. ●



Liburu berria

Prezioa **22€**

Bidalketa gastuak **5€**.

Bidalketa doan **40€**-tik gorako erosketetan.

Erosketak **BIZUM** bidez ordaindu daitezke.

azoka.argia.eus (+34) 943 37 15 45



Nola bizirik da artzain bat? Galderari erantzuna baino gehiago, liburu honetan aurkituko duzu *zer bizirik duen artzain batek eta horrek nola zeharkatzen duen.*

Eguneroko batean jaso du protagonistak artaldearen urtebetea. Bizipenak, hausnarketak, borrokak, ezinak eta pozak.

Artzaintzaren *imajinario estandarrean* sartzen ez den artzaina dago orrialdeotan: emakumea, euskalduna, ekologista, barazkijalea...



Menda Bikoitza

Bi astelehenean behin
ARGIA eta audio
plataforma guztietan

 [ARGIA.eus/podcast](https://argia.eus/podcast)

Garbiñe Larrearen podcasta

Sendabelarrei buruzko
bitxikeriak, erabilera
praktikoak eta elkarrizketak

 ARGIA

